

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**



**Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbenako Udalak**

**Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana-Abanto  
Zierbena**

**2016**





## AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI	
BURUZKO IRIZPENAK .....	10
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea .....	10
III.2 Sarrera fiskalak .....	11
III.3 Langileria .....	11
III.4 Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	11
III.5 Kontratazioa .....	12
III.6 Beste batzuk .....	12
IV. FINANTZA ANALISIA.....	13
V. URTEKO KONTUAK.....	17
ERANSKINAK .....	21
A.1 Fiskalizatutako erakundearen izaera.....	21
A.2 Kontabilitatea eta aurrekontuak .....	21
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak .....	23
A.4 Kapital transferentziek eta diru-laguntzek eragindako sarrerak .....	24
A.5 Langileria-gastuak.....	25
A.6 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa .....	27
A.7 Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	28
A.8 Inbertsio errealkak, ibilgetua eta epe luzeko finantza inbertsioak .....	29
A.9 Zorpetzea .....	30
A.10 Zordunak .....	31
A.11 Hartzekodunak .....	32
A.12 Diruzaintza .....	33
A.13 Hirigintzako jarduerak eta plangintza .....	33
A.14 Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SL .....	34
A.15 Kontratazioaren analisia.....	36
A.16 Finantza eta aurrekontuko adierazleak.....	37
ALEGAZIOAK .....	39



<b>ABREVIATURAS .....</b>	<b>47</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN.....</b>	<b>49</b>
<b>II. OPINIÓN.....</b>	<b>50</b>
II.1    Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	50
II.2    Opinión sobre las cuentas anuales .....	50
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>	<b>52</b>
III.1    Presupuesto y contabilidad .....	52
III.2    Ingresos fiscales .....	53
III.3    Personal.....	53
III.4    Transferencias y subvenciones concedidas .....	53
III.5    Contratación .....	54
III.6    Otros .....	54
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>	<b>55</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES .....</b>	<b>59</b>
<b>ANEXOS .....</b>	<b>63</b>
A.1    Naturaleza del ente fiscalizado.....	63
A.2    Contabilidad y presupuestos.....	63
A.3    Impuestos, tasas y otros ingresos .....	65
A.4    Ingresos por transferencias y subvenciones .....	66
A.5    Gastos de personal .....	67
A.6    Compra de bienes corrientes y servicios .....	69
A.7    Transferencias y subvenciones concedidas .....	70
A.8    Inversiones reales, inmovilizado e inversiones financieras a largo plazo ...	71
A.9    Endeudamiento .....	72
A.10    Deudores .....	73
A.11    Acreedores .....	74
A.12    Tesorería.....	75
A.13    Actuaciones urbanísticas y planeamiento .....	75
A.14    Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SL .....	77
A.15    Análisis de contratación .....	79
A.16    Indicadores financieros y presupuestarios.....	80
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>81</b>



## LABURDURAK

139/2015 FD Bizkaiko Foru Aldundiaren 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koan, Bizkaiko tokiko erakundeen kontularitzako esparru arautzailea onesten duena.

AG	Auzitegi Gorena.
AHM	Arautze Harmonizatuari Meneratua.
AO	Administrazio Orokorra.
AP	Aleko prezioak.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
BLH	Bizkaiko Lurralde Historikoa.
BPG	Barne Produktu Gordina.
DDBN	Diru-laguntzen Datu Base Nazionala.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koan, Diru-laguntzei buruzkoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EFPL	6/1989 Legea, uztailaren 6koan, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
EHJAN	Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorena.
EIOZ	Eraikuntza, instalakuntza eta obren gainekeko zerga.
FA	Foru Araua.
GODG	Gastu Orokorretarako Diruzaintza geldikina.
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra.
HHS	Hiriko Hondakin Solidoak.
HILBIZ	Hiri izaerako lursailen balio igoeraren gainekeko zerga.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera ekonomikoen gainekeko zerga.
KEAO	Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa.
LUO	Lurraren Udal Ondarea.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
MINECO	Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.
OHZ	Ondasun higiezinen gainekeko zerga.
PGPN	Publikotasunik gabeko Prozedura Negoziatura.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koan, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
TE	Toki Entitateak.



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Pùblicas

- |      |  |
|------|--|
| TMIZ | Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga. |
| XG   | Xedapen gehigarria.                            |



## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Abantoko Udalaren 2016ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkotasuna: honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarría den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak Udalaren eta Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SL udal sozietatearen balantzea, ekonomia-ondarearen emaitzaren kontua eta oroitidazkia besarkatzen ditu. Udalari dagokionez, gainera, aurrekontuen likidazioa ere jasotzen du.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Abantoko udalerriak 9.577 biztanle zituen 2016ko urtarrilaren 1ean eta bere egituran, Udalaz gain, Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SL sozietate publikoa barne hartzen du, % 100 udalak partaidetua; sozietate honek tokiko garapen agentzia kudeatzen du eta Udalak agintzen dizkion beste jarduera batzuk garatzen kultura, gazteria, kirol, ingurumen eta Tokiko Agenda 21 ataletan (ikus A.14).

Gainera, ondoko mankomunitate eta partzuergoen atal da: Ezkerraldeko eta Meatzaldeko Mankomunitatea (HHSen kudeaketa), Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa (uraren ziklo osoaren kudeaketa) eta Bizkaiko Garraio Partzuergoa (garraio zerbitzua). 2016ko ekitaldi itxieran Talleres Gallarreta Lantegiak, S.L, eta Meatzaldeko Behargintza, SL sozietateetan ere parte hartzen zuen Trapagaran, Muskiz eta Ortuellako Udalekin batera lehenengoan eta horiez gain, baita Zierbenako Udalarekin ere bigarren sozietatean (ikus A.8).



## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### KONTRATAZIOA

- 2016ko ekitaldian kontratu bidezko estaldurarik gabe hainbat gastu gauzatu ziren, bide garbiketa zerbitzuei, hiri-hondakin solidoen bilketari eta zerbitzu osagarriei zegozkienak, 696.998 euroren zenbatekoan, harik eta kontratu berria indarrean sartu zen arte, urte horretako azaroan esleitu zena (4. espedientea A.15en).
- Udalak 2016ko ekitaldian energia elektrikoa hornitzeko zerbitzua kontratatu zuen, guztira 409.942 euroren zenbatekoan, esleipen prozedurari dagozkion betekizunak saihestuta eta SPKLTBren 86.2 artikuluak xedatutakoa urratuz. Kontratazio hori, baina, arautze harmonizatuari lotutako kontratu tarako aurreikusitako izapidetzeari meneratu behar zitzaiokoen.

Epaitegi honen ustetan, Abantoko Udalak, 1etik 2ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

### II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

- Epaitegi honen iritzira egin behar ziratekeen doitzeek ondotik zehaztutako eragina dute Udalaren 2016ko abenduaren 31ko Diruzaintza Geldikinaren, Egoera Balantzearen eta Funts Propioen gainean:

KONTZEPTUA	AURREKONTUKOA DIRUZ. GELDIKINA	Euroak milakotan		
		AKTIBOA	PASIBOA	FUNTS PROP.
A.3 OHZ eta JEZ sarrerak, itxieran kontabilizatu gabeak .....	-	411	-	411
A.3 Sobera kontabilizat. ekitaldi itxietako OHZ eta JEZen sarrerak .....	(288)	(288)	-	(288)
A.3 Zabor eta estolda tasen sarrerak, itxieran kontabilizatu gabeak .....	-	114	-	114
A.4 Udalkutxa 2016ko likidazio negatiboa.....	(466)	-	466	(466)
A.6 Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzu kontabilizatu gabeen gastuak	(300)	-	-	-
A.9 Zorpetze zifraren zuzenketa .....	-	-	(577)	577
A.10 Zalantzazko kobragarritas. saldoen balioespenaren zuzenketa.....	(478)	(478)	-	(478)
A.11 Aurrekontuko hartzekodunen zifraren zuzenketa .....	138	-	(138)	138
A.11 Hirigintzako aprobetxamendua "SUAE LC-01" .....	680	-	(680)	680
<b>UDALA GUZTIRA</b>	<b>(714)</b>	<b>(241)</b>	<b>(929)</b>	<b>688</b>

- Udalaren Kontu Orokorra ez zaio egokitzen Bizkaiko toki entitateen kontabilitateko izapidean ezarritakoari, 139/2015 FD bidez onartutakoa, izan ere, ez ditu jasotzen ondare garbian aldaketen egoera, eskudiruzko fluxuen egoera, ezta toki entitatearen memoria ere.



3. BFAk 2013ko maiatzaz geroztik betearazte-bidean bildutako kopuruei dagokienez, ez dira aurrekontuan erregistratu berandutza eta premiamenduko gainkarguen interesei dagozkien diru-sarrerak. Zorren printzipalari dagokionez, zorrak bidegabeki ordaindu gabe modura ageri diren kasuetan kobrantzak erregistratu ez direlako, atxikitako narriadura deuseztatzea da egokia bi urtetik gorako antzinatasuna duten haien kasuetan (ikus A.3 eta A.11).
4. Ez dago euskarri egoki edo behar adinakorik Udalaren Balantzean jasotako ibilgetu ez finantzarioaren saldoak 2016ko abenduaren 31ko ondasun eta eskubideen egiazko egoerarekin bat datozen ondorioztatzen utziko duenik, ezargarriak zaizkion printzipio eta balorazio irizpideei jarraikiz (ikus A.8).
5. Ez dago euskarri egoki edo behar adinakorik Udalaren Balantzean jasotako epe luzeko finantza inbertsioen saldoak 2016ko abenduaren 31ko ondasun eta eskubideen egiazko egoerarekin bat datozen ondorioztatzen utziko duenik, ezargarriak zaizkion printzipio eta balorazio irizpideei jarraikiz (ikus A.8).

Epaitegi honen iritzira, 1etik 5era bitarteko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Abantoko Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietañ 2016ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten du; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



### **III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK**

Atal honetan, alde batetik, jarduera ekonomiko eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzeari modu nabarmenean eragiten ez dioten hutsak adierazten dira; eta bestetik, kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozeduraren alderdiak.

#### **III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA**

- 2016ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra ez zen 2015eko abenduaren 31 baino lehenago behin betiko onartu, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 FAren 15.2 artikuluak agintzen duen moduan (ikus A.2).
- 2016ko ekitaldian aurrekontuaren egonkortasun helburua bete izanari buruzko tokiko Kontu-hartzaitzaren txostena egitea Udalari soilik zegokion, ez mendeko duen Abantozierbena Zerbitzuak, SL entitateari; gainera, egindako kalkuluek ez zituzten Nazio eta Lurraldeko Kontuen Europako Sistemaren arabera ezargarriak diren doiketak txertatzen (1463/2007 Errege Dekretuaren 16.2 artikulua, azaroaren 2koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzeko araudia onesten duena, toki entitateei dagokienez.
- 2016ko ekitaldian Udalak 244.264 euroren zerga-sarrerak kontabilizatu zituen transferentzia eta diru-laguntza arrunten kapituluan (ikus A.4).
- Udalak transferentzia eta diru-laguntzen kapituluan ondasun eta zerbitzuen kontrataazioari dagozkion gastuak, nagusiki kultur ekintza eta festen ospakizunekin edo gizarte zerbitzuen arloarekin lotutakoak; ordea, zuzena gastuen bigarren kapituluari egoztea litzateke (ikus A.7).
- Langileari emandako aurrerakin eta maileguen itzulketak ez dira kontabilitatean emakidak erregistratzen diren kontu berean erregistratzen eta kontularitzako saldoak egiazko saldoa 69.325 euroan gainditzen du 2016ko ekitaldi itxieran, ondoko taulan ikus daitekeen moduan:

	Euroak milakotan
	ZENBATEKOA
Epe labur. zord. langileei emand. mailegu eta aurrerakinengatik (ikus A.10) .....	67
Epe luz. zord. langileei emandako mailegu eta aurrerakinengatik (ikus A.8) .....	13
<b>LANGIL. EMAND. AURRER. ETA MAILEGUEN KONTUL. SALDOA GUZTIRA</b>	<b>80</b>
Saldoak murritzeko zuzen erregistratu gabeko itzulketak.....	(69)
<b>LANGIL. EMAND. AURRER. ETA MAILEGUEN EGIAZKO SALDOA</b>	<b>11</b>



### **III.2 SARRERA FISKALAK**

- Udalak 2013ko maiatzean hitzarmen bat izenpetu zuen BFArekin nahitaezko dirubilketaren kudeaketa gauzatzeko. Gerora BFAk aipatutako hitzarmena aplikatuta egindako kobrantzengatik transferitutako kopuru guztiak identifikatu gabe daude, aplikatzeko zain dauden kobrantzen kontu-sail batean (ikus A.3 eta A.11). Udalak ez daki zein zergadunek egin dituzten ordainketak eta zein kontzeptutarako.
- Hiri izaerako lursailen balioaren igoeraren gaineko zergaren likidazioak (HILBIZ) atzerapen handiz egiten dira Udalean eta fiskalizazio-gai izan den ekitaldian kontabilizatutako sarrerak eraikinen transmisioei dagozkie, oro har hiru urte lehenago egindakoenak.

### **III.3 LANGILERIA**

- Udalaren Lanpostu-zerrenda ez zaio plantillaren egiturazko beharrizanei egokitzen eta behar horiei zerbitzu enpresen kontratazio bidez erantzuten zaie. Adierazitako prozedura erabili izanaren ondorioz, 2016ko ekitaldi itxieran lan kontratu mugagabe ez finkoko izaera zuen langile bat zegoen funtzionarioentzat gordeta behar luketen egitekoak betetzen, EFPLren 19. artikuluari jarraikiz (ikus A.5).
- 2016ko urtean egindako aldi baterako lan-kontratuko langileen bi kontrataziotan, epe motzekoak, ez da behar hainbat egiaztatu hautaketa-prozedurarik batere egin denik.

### **III.4 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK**

- Udalak ez du diru-laguntzen plan estrategikorik, eskuratu asmo diren helburu eta ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikusgarri diren kostuak eta finantzaketa iturriak zehaztuko dituena.
- Ez da betetzen informazioa emateko obligazioa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 20. artikuluak arautzen duena.
- 2016ko ekitaldian 10 onuraduni emandako 25.481 euroen diru-laguntza zuzenetan ez dago erasota onuradun izaera eskuratzeko Diru-laguntzen Lege Orokorraren 13.2 artikulan aurreikusitako betekizunak bete diren eta zehazki, ez da zerga eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan gaurkotuta dagoelako inongo agiri justifikagarriek aurkezteko eskatu. Halaber, ez da argitara eman diru-laguntza hauen zenbateko, helburu eta onuradunei buruzko informazioa (abenduaren 9ko 19/2013 Legearren 8.1.c artikulua, gardentasun, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa).



### **III.5 KONTRATAZIOA**

#### **Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLren kontratazio prozedurak**

- Sozietatearen kontrataziorako barne aginpideak SPKLTBra egokitu gabe zeuden.

#### **Kontratazio espedienteak (ikus A.15)**

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden hamabi kontratu aztertu ondoren, honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu:

- Kontratu baten esleipen-ebazpenak (5 zk. espedientea), aleko prezioetan esleitutakoa, ez zuen ezargarria den hitzarmen kolektiboari buruzko informaziorik barne hartzen, apirilaren 7ko 3/2016 Legeak agintzen duen moduan, kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk barne hartzeari dagokionez.
- Guztira 154.055 euroren zenbatekoan esleitutako bi kontratutan (11 eta 12 zk. espedienteak) ez ziren behar hainbat justifikatu eskaintzak balio-neurtzean emandako puntuazioak, balio-judizio baten mendeko ziren irizpideak zenbatestean.
- Atzerapenak gertatu ziren 203.488 euroan esleitutako bi kontraturen egikaritzan (2 eta 8 zk. espedienteak) eta ez dago jasota luzapenak gauzatu izana. Bietan ere egikaritza epea negoziatu beharreko ezaugarrietako bat izan zen esleipenduna hautatzeko orduan eta berandutzeak egikaritza epeen gainean % 300dik gorakoak izan ziren.
- 133.986 euroren zenbatekoan esleitutako obra batean (2 zk. espedientea) ez dago jasota dagokion harrera-akta egin zenik (SPKLTBren 234.2 artikulua).

#### **Administrazio kontrataziorik gabeko gastua**

- Udalak ez du procedura negoziatu bitartez administrazio-kontratazioko derrigorrezko espedientea izapidetu, gas-hornidurari dagozkion 48.703 euroren gastuen egikaritzan.

### **III.6 BESTE BATZUK**

#### **Gardentasuna**

- Abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoari jarraikiz, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, udalek aldiaka-aldiaka eta modu eguneratuaren argitara eman beharko dute informazioa, zeinaren ezagutza garrantzizkoa den euren jardueraren gardentasuna bermatzeko, jarduera publikoaren funtzionamendu eta kontrolari dagokionez. Lege hau zuzen betetzeko Udalak web orrian argitaratu behar lituzke, besteak beste, urteko kontuak, aurrekontuaren egikaritzari eta aurrekontuaren egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzko informazioa eta tokiko ordezkarien ondasun eta jardueren urteko aitorpenak.



## IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

	uroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2014(*)	2015(*)	2016	2014	2015	2016
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	4.875	4.789	4.669	503	497	485
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.) .....	6.297	6.294	6.081	650	653	637
Ondare sarrerak (5. kap.) .....	81	82	65	9	9	7
<b>A. Diru-sarrera arruntak .....</b>	<b>11.253</b>	<b>11.165</b>	<b>10.815</b>	<b>1.162</b>	<b>1.159</b>	<b>1.129</b>
Langileria gastuak (1. kap.) .....	3.364	3.435	3.650	347	357	381
Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak (2. kap.) .....	4.773	5.092	4.543	493	528	474
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.) .....	1.528	1.605	1.615	158	167	169
<b>B. Funtzionamendu gastuak.....</b>	<b>9.665</b>	<b>10.132</b>	<b>9.808</b>	<b>998</b>	<b>1.052</b>	<b>1.024</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B).....</b>	<b>1.588</b>	<b>1.033</b>	<b>1.007</b>	<b>164</b>	<b>107</b>	<b>105</b>
- Finantza gastuak (3. kap.) .....	17	8	2	2	1	-
<b>Emaitzia arrunta.....</b>	<b>1.571</b>	<b>1.025</b>	<b>1.005</b>	<b>162</b>	<b>106</b>	<b>105</b>
- Maileguen amortizazioa (9. kap.) .....	535	421	423	55	44	44
<b>Aurrezki garbia .....</b>	<b>1.036</b>	<b>604</b>	<b>582</b>	<b>107</b>	<b>62</b>	<b>61</b>
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	91	10	52	10	1	5
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.) .....	50	1.862	1.292	5	193	135
- Inbertsio errealak (6. kap.) .....	716	1.976	1.612	74	205	168
- Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.) .....	21	-	-	2	-	-
Kapitaleko eragiketen emaitza.....	(596)	(104)	(268)	(61)	(11)	(28)
Eragiketa ez finantzaz. emaitza (1etik 7rako kap.) .....	975	921	737	101	95	77
Diruzaintzako Geldikina .....	1.032	1.709	2.000	107	177	209
Gastu Orokorrerarako Diruzaintza geldikina .....	951	860	1.567	98	89	164
Zorpetzea.....	3.510	3.088	2.665	362	321	278

(\*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** 2015 eta 2016ko ekitaldian diru-sarrera hauek aurreko ekitaldien aldean % 1 eta % 3 bitartean egin zuten behera, hurrenez hurren, eta aztertutako aldian guztira % 4 murriztu ziren. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Sarrera arruntei dagokienez azaldutako bilakaera bertsua izan zuten. EIOZ kontzeptuan aitortutako sarreren fluktuazioaren eragina kenduta, aztertutako aldian sarrerek are nabarmenago egin zuten behera, % 5,5en gainetik eta 2015eko ekitaldian nagusitzen da aurreko ekitaldiaren aldean % 5eko bariazio garbi negatiboarekin. Bariazio nagusiak honako hauek izan dira:



- **Zerga zuzenak:** Diru-sarrera hauek 2015ean % 6 egin zuten behera aurreko ekitaldiaren aldean eta pixka bat berroneratu ziren 2016an; honen ondorioz, aztertutako aldian % 5,5ekoa baino zertxobait handiagoa izan zen murrizketa. Aipatutako fluktuazioa nagusiki OHZk eta HILBIZek izan duten jokaeraren ondorio da. Azken zerga honi dagokionez esan behar da 2015ean 137.574 euroren diru itzulketak egin zitzazkiola Eliza Katolikoaren Bilboko Elizbarrutiari, epai baten ondorioz, eta ekitaldiko diru-sarreretan eragin negatiboa izan zutela.
- **Tasak eta bestelako sarrerak:** 2015 eta 2016ko ekitaldian diru-sarrerra hauek aurreko ekitaldien aldean % 2 eta % 3 bitartean egin zuten behera, hurrenez hurren, eta aztertutako aldian guztira % 5 murriztu ziren. 2015eko ekitaldian kapitulu honetan berandutza interesak eta premiamendu gainkarguak itzultzeagatik baliogabetzeak erregistratu ziren, arrestiko paragrafoan aipatutako epaiarekin lotuta, guztira 95.672 euroren zenbatekoan.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Sarrera hauek ez zuten ia batere aldaketarik izan aurreko ekitaldiaren aldean eta 2016an % 3 egin zuten behera. Bilakaera hori zerga itunduen partaidetzatik eratorritako sarrerek izan dutenaren oso antzekoa izan da (Udalkutxa); sarrera hauek kapituluko diru-sarrera guztien % 90 baino gehiago egiten dute.

**Funtzionamendu gastuak:** Sarrera arruntek ez bezala, gora egin dute aztertutako aldian (% 1,5). Hona hemen alderdi esanguratsuenak aurrekontuko kapituluen arabera:

- **Langile gastuak:** 2015ean langile gastuek % 2 egin zuten gora aurreko ekitaldiaren aldean, besteak beste, 2012ko abenduko aparteko ordainsaria ordaindu izanaren ondorioz. 2016an kopuru bereko ordainketa egin da, kontzeptu berarekin, oraindik ordaintzeko zegoen gainerakoari dagokiona (ikus A.5). Ekitaldi horretan kapituluko gastua % 6 handitu zen, aplikatutako % 1eko ordainsari igoera baino askoz handiagoa. Honi dagokionez esan behar da zenbait ebazpen judizial betez, 2016an 141.029 euro ordaindu zirela udal kontu-hartzale kargua betetzen zuen langile bat 2010ean ordeztu izanaren ondorioz (ikus A.5).
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa:** Nahiz 2015eko ekitaldian gastuak % 7 egin zuen gora, 2016an izandako % 11ko beheraldiaren ondorioz, aztertutako aldian bariazioa guztira negatiboa izan da, % 5 ingurukoa.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Kontzeptu honek eragindako gastuak % 5 egin zuen gora 2015eko ekitaldian aurreko ekitaldiaren aldean eta berriz igo zen 2016an, % 1 baino gutxiago; horren ondorioz, aztertutako aldian bariazioa guztira % 6 ingurukoa izan da. Bilakaera hau udal soziitateari egindako transferentziek izan dutenaren parekoa izan da, aztertutako ekitaldi bakotzean kapituluko gastuen % 28 egiten dutenak.

**Aurrezki gordina eta aurrezki garbia:** Bi magnitudeek saldo positiboa dute aztertutako aldiaren hiru ekitaldietan, nahiz murriztu diren: % 40 aurrezki gordina eta ehuneko horren gainetik aurrezki garbia. Aurrezki gordina 2014ko ekitaldian sarrera



arrunten gainean % 14 izatetik 2016an horien gainean % 9 izatera aldatu da eta aurrezki garbia % 9tik % 5era aldatu da adierazitako aldian magnitude berari dagokionez.

**Kapital eragiketen emaitza:** Magnitude honek saldo negatiboa erakusten du aztertutako aldian, bereziki handia 2014ko ekitaldian. Ondoko ekitaldietan, nahiz inbertsio errealen gastua 2014ko ekitaldiarekiko % 176 eta % 125 bitartean hazi den, diru-laguntzek eta kapital transferentziek eragindako diru-sarreren bilakaerak eragin du kapital eragiketen emaitzaren saldo negatiboa txikiagoa izatea.

**Eragiketa ez finantzarioen emaitza:** Positiboa izan da aztertutako aldi guztian zehar, nahiz % 24 egin duen behera.

**Diruzaintza geldikina:** 2016ko ekitaldia 2 milioi euroren Gastu Orokorrerako Diruzaintza Geldikinarekin kitatu da. Alabaina, HKEE honek proposatu dituen doikuntzak aintzat hartuz gero, magnitude hau 1,3 milioi eurotara murritzuko litzateke eta Gastu Orokorrerako Diruzaintza Geldikina, berriz, 853.704 eurotara gehitu.

**Zorpetzea:** 2016an % 14 egin du behera 2015ekoarekiko eta % 12 azken ekitaldi honetan aurrekoarekiko, gauzatu diren amortizazioen ondorioz. Aztertutako aldian ez da beste zorpetze eragiketarik gauzatu.

**Ondorioa:** Nahiz Udalaren egoera ekonomikoa itxura batean osasuntsua den, aurrekontuko magnitudeen gainean egin behar diren zuzenketek egoera doituagoa erakusten digute. Nolanahi den ere, egungo gastu-mailari eutsiz gero, Udalak behar hainbat baliabide ditu funtzionamendu arruntari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei aurre egiteko, zorpetu beharrik izan gabe.



**Aurrekontuaren egonkortasuna:** Udalak eta udal sozietateak 2016ko ekitaldiko aurrekontuen likidazioa dela-eta, aurrekontuaren egonkortasun, gastuaren arau eta zor publikoaren helburuak betetzeari dagokionez egindako azterlanaren ondorioz zera egiaztatu da:

- Aurrekontuaren egonkortasunari buruzko helburua bete da, eragiketa ez finantzarioen superabita eskuratu baita.
- Gastuaren araua bete da, izan ere 2015eko ekitaldiaren aldean zenbakarria den gastuaren barazioak ez zuen Espainiako ekonomiaren epe ertaineko BPGren erreferentziazko hazkuntza tasa gainditu (% 1,8).
- Zor publikoaren helburua bete da, egiazko zor biziaren bolumena 2016ko abenduaren 31n finantzazkoak ez diren sarreren % 60 baino txikiagoa izan baita.



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Pùblicas

## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 UDALA

#### 2016-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERA	ERANSK.	AURREKONTUA			SARRER.	GABE	KOBR.	%(*)
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.			KOBR.	
1. Zerga zuzenak .....	A.3	3.576	-	3.576	3.307	3.191	116	%92
2. Zeharkako zergak .....	A.3	200	-	200	251	137	114	%126
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	1.175	-	1.175	1.111	1.057	54	95
4. Transferentzia arruntak .....	A.4	6.552	1	6.553	6.081	6.081	-	%93
5. Ondare sarrerak .....	A.8	50	-	50	65	62	3	%130
6. Inbertsio errealak besterentzea.....	A.8	44	-	44	52	52	-	%118
7. Kapital transferentziak .....	A.4	74	798	872	1.292	968	324	%148
8. Aktibo finantzarioak .....	A.8	15	970	985	45	45	-	(*)%297
9. Pasibo finantzarioak.....	-	-	-	-	-	-	-	-
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>11.686</b>	<b>1.769</b>	<b>13.455</b>	<b>12.204</b>	<b>11.593</b>	<b>611</b>	<b>(*)%98</b>

(\*) Exekuzioaren % kalkulatzerakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			GASTUAK	ORDAINK.	GABE	EXEK.	%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BET.					
1. Langileria-gastuak.....	A.5	3.622	41	3.663	3.650	3.529	121	% 100	
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. kontrat ...	A.6	5.543	7	5.550	4.543	4.053	490	% 82	
3. Finantza-gastuak.....		20	-	20	2	2	-	% 10	
4. Transferentzia arruntak .....	A.7	1.684	6	1.690	1.615	1.518	97	% 96	
5. Kreditu globala .....		260	(255)	5	-	-	-	E/E	
6. Inbertsio errealak .....	A.8	132	1.970	2.102	1.612	1.491	121	% 77	
8. Aktibo finantzarioak .....	A.8	15	-	15	13	13	-	% 87	
9. Pasibo finantzarioak.....	A.9	410	-	410	423	423	-	% 103	
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>11.686</b>	<b>1.769</b>	<b>13.455</b>	<b>11.858</b>	<b>11.029</b>	<b>829</b>	<b>% 88</b>	

#### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	HASIER.			KOBR/	AZKEN
	ERANSK.	ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Kobratzeko dauden saldoak .....	A.10	4.337	-	(82)	4.255
Ordaintzeko dauden saldoak.....	A.11	(1.048)	-	908	(140)
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>					-



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Kitatutako eskubideak.....	12.204
Aitortutako obligazioak.....	(11.858)
<b>INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>346</b>
<b>AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>346</b>
Finantzaketako desbideratzek.....	378
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	35
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>759</b>

DIRUZAINTEZA GELDIKINA	Euroak milakotan
<b>KOBRAZTEKO DAUDEN SALDOAK EKITALDI AMAIERAN (A)</b>	<b>4.317</b>
Diru-sarreren aurrekontukoak, unekoak .....	611
Sarreren aurrekontukoak, itxia .....	4.255
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak (ikus A.10).....	8
- Gauzatutako sarr., behin betiko aplikatzeko daudenak (ikus A.11).....	(557)
<b>EKITALDI AMAIERAN ORDAINTZEKO DAUDEN SALDOAK (B)</b>	<b>3.130</b>
Gastuen aurrekontukoa (ikus A.11) .....	969
Sarreren aurrekontukoa .....	-
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak (ikus A.11).....	2.161
<b>DIRUZAINTEZA FUNTS LIKIDOAK (C)</b>	<b>3.964</b>
<b>DIRUZAINTEZA GELDIKIN GORDINA (D=A-B+C)</b>	<b>5.151</b>
- Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak (ikus A.10) .....	(3.151)
<b>DIRUZAINTEZA GELDIKIN LIKDOA</b>	<b>2.000</b>
<b>FINANTZAKETA ATXIKIA DUTEN GASTUETARAKO GELDIKINA</b>	<b>433</b>
<b>GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA</b>	<b>1.567</b>
 <b>ZORPETZEA 16/12/31-N (ikus A.9)</b>	 <b>2.665</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

BALANTZEA 2016-KO ABENDUAREN 31-N Euroak milakotan

AKTIBOA	Eransk.	16/12/31	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Eransk.	16/12/31
<b>AKTIBO EZ KORRONTEA</b>		<b>176.291</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>174.802</b>
Ibilgetu ez-materiala .....	A.8	(3)	Ekarritako ondarea.....		1.319
Ibilgetu materiala.....	A.8	170.591	Sortutako ondarea.....		172.543
Inbertsioak eraikuntzan.....	A.8	1.044	Jasotako diru-lag., egoztek daudenak .....		940
Lurrauen ondare publikoa.....	A.8	2.308			
Finantza inbertsioak epe luzera .....	A.8	2.351	<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>	<b>A.9</b>	<b>2.832</b>
			Epe luzeko zorrak finantza erakundeekin ...		2.832
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>5.755</b>			
Zordunak eta kobraitz. bste knt. btzu e/lab A.10		1.599	<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>A.11</b>	<b>4.412</b>
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	A.10	192	Zorrak epe laburrera .....		2.484
Eskud. eta best. aktibo likido baliokideak	A.12	3.964	Hartzed. eta ordain. bst knt b. ....		1.928
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>		<b>182.046</b>	<b>ONDARE GARB. ETA PASIB., GUZTIRA</b>		<b>182.046</b>

2016-KO EKITALDIKO ONDARE-EKONOMIAREN EMAITZAREN KONTUA Euroak milakotan

	16/12/31		16/12/31
Langileria-gastuak.....	(3.652)	Zerga eta hirigintzako diru-sarr. .....	4.351
Emandako transf. eta diru-laguntzak.....	(1.629)	Jasotako transf. eta diru-laguntzak .....	6.331
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk .....	(4.828)	Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak.....	252
Ibilgetua amortizatzea.....	(689)	Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk .....	169
<b>KUDEAK. ARR. GASTUAK GUZT.</b>	<b>(10.798)</b>	<b>KUDEAK. ARR. GASTUAK GUZT.</b>	<b>11.103</b>
		<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA</b>	<b>305</b>
Arruntak ez diren beste kontu sail batz.....			46
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZ. EMAITZA</b>			<b>351</b>
Diru-sarrera finantzarioak .....			9
gastu finantzarioak .....			(2)
<b>Beste batzuk .....</b>			<b>4</b>
<b>ERAG. FINANTZ. EMAITZA</b>			<b>11</b>
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>			<b>362</b>



## V.2 ABANTO-ZIERBENA ZERBITZUAK, SL

EGOERAREN BALANTZEAK 2015 ETA 2016-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	16/12/31	15/12/31
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>61</b>	<b>85</b>
Ibilgetu materiala .....	61	85
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>302</b>	<b>174</b>
Merkat. zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk .....	219	93
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	1	12
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.....	82	69
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>363</b>	<b>259</b>
<b>ONDARE GARIA</b>	<b>49</b>	<b>68</b>
Eskrituran jasotako kapitala.....	3	3
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	46	65
<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>	<b>20</b>	<b>26</b>
<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>294</b>	<b>165</b>
Zorrak epe laburrera .....	184	10
Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk .....	110	155
<b>ONDARE GARB. ETA PASIB., GUZTIRA</b>	<b>363</b>	<b>259</b>

2015 ETA 2016-KO ABENDUAREN 31-N GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	ERANSKINA	2016	2015
Negozio-zifraren zenbateko garbia.....	A.14	8	11
Hornikuntzak .....		(1)	(8)
Bestelako ustiapan sarrerak.....	A.14	483	627
Langileria-gastuak.....	A.14	(176)	(241)
Bestelako ustiapan gastuak .....		(314)	(389)
Ibilgetua amortizatzea.....		(24)	(24)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea eta beste .....	A.14	24	24
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>		-	-
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>		-	-
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>		-	-



## ERANSKINAK

### A.1 FISKALIZATUTAKO ERAKUNDEAREN IZAERA

Abantoko Udal Administrazioko toki entitatea da, oinarrizko ezaugarriean Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eta apirilaren 7ko 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena. Lege horiek artikulatuaren udalek dituzten gaitasunak edo ematen dituzten zerbitzu publikoak definitzen dituzte; aipatzekoak dira besteak beste: segurtasuna, garbiketa zerbitzua, suteak itzaltzea, ura hornitzea, saneamendu sarean, argiteria publikoa, hirigintzako diziplina, kultur eta kirol jarduerak, e.a.

Zerbitzu horiek guztiak nagusiki hauen bitartez finantzatzen dira:

- Udal zergak.
- Berariaz aurrez aipatutako zenbait zerbitzu finantzatzen dituzten tasa eta prezio publikoak.
- Partaidetza zerga itunduetan eta itundu gabeetan.
- Ondare sarrerak
- Diru-laguntzak.
- Kreditu eragiketak

Kudeaketa zuzen edo zeharka udalek eman dezakete. Udalak berak kudeaketa zuzena gauza dezake edo toki entitate autonomoak, merkataritzako sozietae publikoak, mankomunitateak eta partzuergoak sortuta.

### A.2 KONTABILITATEA ETA AURREKONTUAK

20016ko ekitaldirako aurrekontua 2015eko abenduaren 17ko Osoko bilkurak onetsi zuen hasiera batean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean hil bereko 21ean eman zen argitara. Jendaurrean jartzeko epea erreklamaziorik jaso gabe igaro ondoren, behin betiko onartutako aurrekontua 2016ko urtarrilaren 19an eman zen argitara berriz BAOn.

Ondoren, 2016ko aurrekontu aldaketak kapituluak xehatuko ditugu:

KAPITULUAK	KREDITU TXERTAK.	KREDITU OSAGARRIA	KREDITU GEHIKUN.	Euroak milakotan	
				TRANSF. GARBIAK	GUZT.
1. Langileria-gastuak.....	41	-	-	-	41
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. kontratazioa .....	27	-	-	(20)	7
4. Transferentzia arruntak .....	2	-	1	3	6
5. Kreditu globala .....	-	-	-	(255)	(255)
6. Inbertsio errealak .....	815	85	798	272	1.970
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>885</b>	<b>85</b>	<b>799</b>	<b>-</b>	<b>1.769</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Kreditu gaikuntzak ia osorik kapitaleko diru-laguntza bitartez finantzatu ziren. Aurrekontuko gainerako aldaketak finantzatzen dira Diruzaintza Geldikin erabilgarriaren zati bat baliatuta 2015eko ekitaldi itxieran, 969.555 euroen zenbatekoan.

Aurrekontuko aldaketa hauek % 15 igo dira, hasiera bateko 11,7 milioi euroren aurrekontua izatetik 13,5 milioi euroren behin betiko aurrekontua izatera aldatuz. Ekitaldian zehar aurrekontua aldatzeko 29 expediente izapidetu dira, guztiak ere gainerako Alkatetzaren Dekretu bitartez onartutakoak. Hona hemen aurrekontuko aldaketa esanguratsuenak:

	Euroak milakotan
PROIEKTUA	ZENBAT.
Euskal Herriko Meatzaritzaren Kult. eta Ingurumen Parkea eraikitza (1).....	811
2012ko gainerako aparteko paga .....	37
2015eko ekitaldian aurrekontuari egozteko dauden obligazioak .....	37
<b>TXERTATUTAKO KREDITUAK GUZTIRA</b>	<b>885</b>
Zoladura hobetzea Cotarro auzoan.....	85
<b>KREDITU OSAGARRIAK GUZTIRA</b>	<b>85</b>
Euskal Herriko Meatzaritzaren Kult. eta Ingurumen Parkea eraikitza (1).....	400
Santa Juliana auzoan etxebizitzen erosketa eta eraisketak.....	200
Rubiasko tunelean lur-jausia egonkortzea (1).....	182
Bestelako txikiago batzuk .....	17
<b>GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA</b>	<b>799</b>

(1) Ikus obra nagusiaren analisia A.15ean.

2016ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2017ko uztailaren 13ko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2017ko uztailaren 13ko Udalbatza bitartez.

2016ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak dira 139/2015 FDren arabera formulatu diren lehenengoak. Hori dela eta, aipatu arauaren 2. xedapen iragankorrik arautzen duenaren arabera, ez da islatuko balantzean, ez ekonomia-ondare emaitzaren kontuan, ez konparaziozko informaziorik jaso duten gainerako egoeretan ere, aurreko ekitaldiari buruzko zifrarik.



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Pùblicas

### A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2016ko ekitaldian zehar zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarreren kontzeptuan kitaturiko eskubideen xehapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	ESKUBIDE KITATUAK
OHZ.....	1.327	
TMIZ .....	623	
HILBIZ .....	13	
JEZ.....	1.344	
<b>ZERGA ZUZENAK GUZTIRA</b>	<b>3.307</b>	
EIOZ.....	251	
<b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>251</b>	
Zabor bilketa eta estolderia tasak .....	465	
Udal kirolegietako zerbitzuak emateagatikoa tasa.....	219	
Hornidura zerbitzuen enpresa ustiatzaileek lur gaina, lur azpia eta lurra okupatzeag. tasa .....	175	
Bestelako txikiago batzuk.....	252	
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>1.111</b>	
<b>1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA</b>	<b>4.669</b>	

BFAk Udalari OHZ eta JEZ kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko zerbitzuak ematen dizkio, bai borondatezko aldiari, bai premiamendukoan, 2013ko urtean formalizatutako lankidetza-hitzarmenaren indarrez. Udalak 2016ko ekitaldian sarrera modura kontabilizatutako kopuruek barne hartzen zituzten BFAk egindako azken diru-bilketaren konturako entregak eta 2015eko ekitaldiari zegozkion likidazioak. Azken hauek, 244.264 euroren zenbatekoa egin zutenak, diru-laguntzek eragindako sarreren kapituluan erregistratu ziren (ikus A.4). Kontabilizatutako diru-sarrerek, gainera, 2015eko ekitaldi itxieran guztira kobratzeko zegoena jasotzen zuten, okerbidez, aurreko ekitaldiak itxieran kobratzeko zeuden kopuruekin handitura. Hori horrela gertatzen da Udalak ekitaldiko diru-sarrera modura erregistratzen duelako aurreko ekitaldi itxieran guztira kobratzeko zegoena, ekitaldi itxiako zordunei zegokien atala murriztu gabe. 2016ko ekitaldiko azken diru-bilketaren arabera gauzatutako likidazioei eta azken ekitaldi honi dagokion kobratzeoari dagokienez, kontularitzan 2017ko ekitaldiari egotzi zaizkio. Honekin baterako taulan, sobera kontabilizatutako kopuruak eta sortutako diru-sarrerek eta erregistratu gabeak laburtzen dira:

KONTZEPTUA	OHZ	JEZ	Euroak milakotan
2016ko ekitaldiko diru-bilketaren azken likidazioa .....	(59)	373	
2016an jatorria duten OHZ eta JEZen kobratu gabea .....	59	38	
<b>ERREGISTRATU GABEKO SARRERAKGUZTIRA</b>	-	411	
2015ean eta lehenago jatorria duten OHZ eta JEZen kobratu gabea zuzentzea .....	(343)	(529)	
Dagozkion kredituen narriadura-kalkuluaren zuzenketa .....	231	353	
<b>SOBERA ERREGISTRATUTAKO SARRERAKGUZTIRA</b>	<b>(112)</b>	<b>(176)</b>	



Udalak 2010ean Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoari laga zion Abantoko udalerrian bigarren mailako sarean ura hornitzeko instalazioen ustiapena, zaintza eta mantentze-lana, udalaz gaindiko entitateak bere gain hartu zituelarik zerbitzuak eragindako sarrera eta gastuak; horregatik ez dira kontularitzan erregistratzen. Partzuergoak, gainera, zabor eta estolderia tasen kobrantza kudeatzen du. Kontzeptu horren izenean 2016ko ekitaldian kontabilizatutako diru-sarrerak 2015eko laugarren hiruhilekoaren eta 2016ko lehen hiru hiruhilekoen diru-bilketari dagozkio; erregistratzeko daude laugarren hiruhilekoari dagozkion diru-sarreren erregistroa, 114.391 eurorenak, zeinak 2017ko ekitaldiari egotzi baitzaizkio (ikus II.2 atala).

Honekin baterako taulan erregistraturiko gainerako zerga, tasa eta sarrerei dagokienez, Udalak bere gain hartua du borondatezko ordainketaren kudeaketa eta 2013ko maiatzaz geroztik lankidetza hitzarmena du BFArekin derrigorrezko diru-bilketa egiteko. Gerora, BFAk hitzarmena aplikatuta gauzatutako kobrantzengatik eskualdatutako kopuruak aurrekontuan erregistratzeko zeuden 2016ko ekitaldi itxieran, 523.273 euroren zenbatekoan (ikus A.11 eta II.2 atala).

#### A.4 KAPITAL TRANSFERENTZIEK ETA DIRU-LAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2016ko ekitaldian transferentzia eta diru-laguntza arrunt eta kapitalezkoen kontzeptuan kitatutako eskubideak honako hauek izan dira:

KONTZEPTUA	ARRUNTAK	Euroak milakotan	KAPITALEKOAK
<b>Estatuarenak</b>	<b>(2) 254</b>		-
<b>EErenak</b>	<b>160</b>	<b>681</b>	
AO: Santa Juliana auzoan etxebizitzen erosketa eta eraisketak .....	-	323	
AO: Euskal Herriko Kultura eta Ingrumen Parkea eraikitza .....	-	300	
AO: Gizarte Larrialdiarako Laguntzak (1) .....	127	-	
Beste txikiago batzuk .....	33	58	
<b>BLHrenak</b>	<b>5.667</b>	<b>611</b>	
BFA: Zerga itunduetan partaidetza Udalkutxa.....	5.542	-	
BFA: Cotorrio auzoan mendi-hegala egonkortzea .....	-	329	
BFA: Rubiasko tunelean lur-jausia egonkortzea .....	-	182	
BFA: Euskal Herriko Meatzaritzaren Kultura eta Ingrumen Parkea eraikitza .....	-	100	
BFA: Gizartekutxa Funtsa .....	98	-	
Beste txikiago batzuk .....	27	-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.081</b>	<b>1.292</b>	

(1) Ikusi laguntha hauei lotutako gastuak A.7an.

(2) OHZ eta JEZi dagozkien diru-sarrerak barne hartzen ditu (2015eko likidazioa), 244.264 euroren zenbatekoan (ikus A.3).



Zerga itunduen kontzeptuan aitortutako sarrerak murriztuak daude Udalkutxako 2015eko urteari dagokion behin betiko likidazio negatiboaren zenbatekoan, 569.066 eurorena. Fiskalizazio-gai izan den ekitaldiaren behin betiko likidazioak ere BFAren aldeko saldoa erakusten zuen, 465.965 eurorena, kontularitzan 2017ko ekitaldiari egotzi zaiona (ikus II.2 atala).

## A.5 LANGILERIA-GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehapena 2015eko eta 2016ko ekitaldietako aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2016ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

KONTZEPTUA	AITOR. 2016	AITOR. 2015	uroak milakotan	
			LANPOSTU KOP.	
			16/12/31	PLANTILLA
Zinegotziei bertaratzeagatik ordainsari eta dietak .....	177	196	E/E	2
Funtzionarioen ordainsariak.....	2.369	2.163	54	(1) 52
Lan kontratupeko langileen ordainsariak.....	260	255	7	(2) 12
Gizarte Segurantza.....	728	713		
Beste gizarte-gastu batzuk.....	116	108		
<b>LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>3.650</b>	<b>3.435</b>	<b>61</b>	<b>66</b>

(1) 18 bitarteko funtzionario barne hartzen ditu.

(2) Aldi baterako lan kontratupeko hiru langile barne hartzen ditu, horietako bat mugagabe ez finkoa.

## Ordainsariak

Udalak 2016an ordaindutako ordainsariek % 1eko igoera izan zuten aurreko ekitaldiarekiko, 2016ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorreko buruzko urriaren 29ko 48/2015 Legearen 19.2 artikuluak finkatzen duen mugaketa gordez. Igoera hori bera aplikatu zitzaien dedikazio esklusiboko karguak betetzen zitzuten langileek jaso beharreko ordainsariei. Aipatutako Legearen xedapen gehigarri 12.ean erabakitakoari jarraikiz, 2016ko ekitaldian, gainera, ordaindu egin ziren 2012ko abenduko aparteko ordainsaria kendu izanaren ondorioz benetan jaso gabe utzitako zenbatekoetatik berreskuratu gabe zitzuten kopuruak, 76.627 euroren zenbatekoan.

Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Sailaren Araubide Juridikoko sailburuordearen 2010eko irailaren 20ko ebatzen bitartez, estatu mailan jarduteko gaitutako funtzionario bat Abantoko Udaleko kontu-hartzale lanpostutik kentzea berretsi zen eta 8 hilabeteko epean beste lanpostu-destinorik eskuratzeko debekua ezarri zitzaison. Funtzionarioak administrazioarekiko auzi-errekurso aurkeztu zuen ebatzen horren aurka, zeina onartu egin baitzen 2013ko maiatzaren 30eko EHJANen epai bidez. Epaia irmoa izan zen 2014ko otsailaren 27ko eginbide bidez, ez baitzen Auzitegi Gorenaren aurrean aurkeztutako kasazioko errekursoa onartu. Errekurso-egileak uko egin zion kontu-hartzale postura itzultzeari, baina epaia eta gerora ebatzitako hainbat auto aplikatu ostean, Udalak 2016ko ekitaldian 141.029 euroren gastuak ordaindu behar izan ditu, kargugabeturik egon



den aldian jaso ez dituen ordainsariengatik eta ondoko soldata-aldeengatik, harik eta epaia irmoa izan den arte. Zehazki, gastuak ondoko xehapenarekin kontabilizatu dira:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ESKUBIDE
KITATUAK	
Funtzionarioen ordainsariak .....	123
Gizarte Segurantza .....	16
Beste gizarte-gastu bat .....	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>141</b>

## LZ eta plantilla

2016ko ekitaldian izan diren plantillako mugimenduak ondotik laburbildu ditugu:

	Kopurua	
	ALTAK	BAJAK
Karrerako funtzionarioak.....	-	(*) 2
Bitarteko funtzionarioak.....	14	10
Aldi baterako lan-kontratuko langileak.....	3	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>17</b>	<b>14</b>

(\*) Bajak borondatzeko eszedentziagatik gertatu dira kasu batean, eta erabateko ezintasunagatik, bestean.

Honekin baterako taulan bitarteko funtzionarioei emandako altak jasotzen dira eta horietatik hiru gertatu ziren hiru udaltzaingo-plaza jabetzan hornitzeko egindako deialdia ebatzi ondoren, 2014an deitutakoa. Praktika aldia gainditu ondoren, langileek 2017an karrerako funtzionario izaera bereganatu dute.



## A.6 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kapitulu honetan erregistratzen dira ondasun arrunt eta zerbitzuen kontrataazioari dagozkion gastuak. Hona hemen kontzeptu esanguratsuenen xehapena:

	Euroak milakotan
	OBLIGAZIO
	AITORTUAK
<b>DESKRIBAPENA</b>	
<b>Errentamendua</b>	<b>25</b>
<b>Ibilgetuaren konponketak, mantentze lanak eta zaintza</b>	<b>461</b>
Azpiegitura eta ondas. orokorrak .....	209
Eraikin eta bestelako eraikuntzak .....	162
Informatikako ekipoak .....	74
Beste ibilgetu bat .....	16
<b>Bulegoko materiala</b>	<b>28</b>
<b>Hornidurak</b>	<b>569</b>
Energia elektrikoa .....	412
Ura .....	51
Gasa eta erregaiak .....	90
Bestelako hornigaiak.....	16
<b>Komunikazioak</b>	<b>48</b>
<b>Aseguru sariak</b>	<b>48</b>
<b>Zergak</b>	-
<b>Hainbat gastu</b>	<b>91</b>
Publizitatea eta propaganda.....	36
Bestelako hainbat gastu .....	55
<b>Kanpoko enpresek egindako lanak</b>	<b>3.272</b>
Bide garbiketa eta zaborrak jasotza .....	846
Udal kirolegien kudeaketa.....	594
Etxerako laguntza zerbitzua .....	523
Udal areto eta eraikinen garbiketa .....	383
Parkeen eta lorategien zaintza .....	277
HHSen tratamendua .....	202
Gizarte-langile zerbitzua .....	63
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk.....	384
<b>Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak</b>	<b>1</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.543</b>

2016ko ekitaldi itxieran, balantzeko pasibo arruntean 314.490 euroen saldoa erregistratu zen sortutako gastu eta aurrekontuan erregistratu gabeko kontzeptuarekin (ikus A.11), gehien bat, ondasun arrunt eta zerbitzuei zegokiena, 300.322 euroren zenbatekoan (ikus II.2 atala).



## A.7 TRANSFERENTZIA ETA EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

2016ko ekitaldian, Udalak transferentzia eta diru-laguntza arruntak eman ditu; hona hemen xehapena:

	Euroak milakotan
	ZENBATEKOA
<b>TRANSFERENTZIAK</b>	<b>528</b>
Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SL (ikus A.14).....	449
Meatzaldeko Behargintza, SL .....	37
Talde politikoei ekarpenak (2) .....	32
Beste txikiago batzuk (4 erakunde).....	10
<b>IZENDUNAK</b>	<b>199</b>
Meatzaldea Oinarrizko Lanbide Heziketa Zentroa (2) .....	66
Abanto Musika Eskola.....	32
Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa (2).....	32
Beste txikiago batzuk (9 onuradun).....	69
<b>LEHIA</b>	<b>239</b>
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (2) .....	146
Udalerriko elkartea eta kultura entitateei diru-laguntzak .....	37
Beste txikiago batzuk (7 diru-laguntza lerro).....	56
<b>BESTE BATZUK (1)</b>	<b>649</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.615</b>

(1) Gehien bat ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak, kultura ekintzekin eta jaietako lotutakoak edo gizarte zerbitzuen esparruarekin lotutakoekin. Gastuaren gainerakoa diru-laguntza zuzenei dagokie.

(2) Aztertutako transferentzia eta diru-laguntzak.



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Pùblicas

## A.8 INBERTSIO ERREALAK, IBILGETUA ETA EPE LUZEKO FINANTZA INBERTSIOAK

Hona hemen Udalaren aktibo ez korronteko kontuen 2016ko kontu-mugimenduak:

KONTZEPTUA	SALDOA	EROSK.	SALMEN.	FINAN.PAS.	EKITAL.	Euroak milakotan
	16/01/01	/ALTAK (1)	/BAJAK (2)	BARIAZ.	AMORTIZ.	16/12/31
<b>IBILGETU UKIEZINA</b>	<b>7</b>	-	-	-	(10)	(3)
Ibilgetu ukiezina.....	28	-	-	-	-	28
Pilatutako amortizazioa.....	(21)	-	-	-	(10)	(31)
<b>IBILGETU MATERIALA</b>	<b>170.815</b>	<b>457</b>	<b>(2)</b>	-	(679)	<b>170.591</b>
Lursailak eta ondare naturalak .....	101.841	16	(2)	-	-	101.855
Eraikuntzak.....	20.309	21	-	-	-	20.330
Azpiegiturak .....	-	255	-	-	-	255
Instalazio teknikoak eta best. instalazio b.....	63.723	52	-	-	-	63.775
Uneko ibilgetu materiala eta aurrerakinak.....	10.509	36	-	-	-	10.545
Bestelako ibilgetu materiala .....	1.185	77	-	-	-	1.262
Pilatutako amortizazioa.....	(26.752)	-	-	-	(679)	(27.431)
<b>ERAIKUNTZETAN INBERTSIOAK</b>	<b>-</b>	<b>1.044</b>	-	-	-	<b>1.044</b>
<b>LURRAREN ONDARE PUBLIKOA</b>	<b>2.184</b>	<b>124</b>	-	-	-	<b>2.308</b>
<b>EPE LUZEKO FINANTZA-INBERTSIOAK</b>	<b>2.383</b>	-	-	(32)	-	<b>2.351</b>
<b>AKTIBO EZ KORRONTEA GUZTIRA</b>	<b>175.389</b>	<b>1.625</b>	<b>(2)</b>	<b>(32)</b>	<b>(689)</b>	<b>176.291</b>

(1) Gainera, ibilgetuko altak ez dato bat gastuen 6. kapituluan erregistraturiko gastuekin, izan ere, horietako batzuk, 12.997 eurorenak, ekitaldi itxieran aurrekontuan egozteko zeuden fakturei dagozkie.

(2) Hirigintzako kudeaketatik eratorritako beste sarrera batzuekin batera inbertsio errealak besterentzeko kapituluan erregistraturiko kopurua, 50.688 eurorena.

Kanpoko enpresa batek egindako balorazioei jarraikiz, 2016ko ekitaldi itxieran ibilgetu ez finantzarioaren kontularitzako balio garbia 121,2 milioi eurorena zen, balantzean ageri dena baino kopuru nabarmen txikiagoa. Ez dakigu zein den sobera erregistraturiko zenbatekoaren jatorria eta osaera (ikus II.2 atala).

### Epe luzeko finantza-inbertsioak

2016ko ekitaldian zehar, finantza inbertsioen kontzeptuko saldoen bilakaera honako hau izan da:

KONTZEPTUA	SALDOA	(1)	(2)	SALDOA
	16/01/01	ALTAK	BAJAK	16/12/31
Epe luz. finantza inb., taldeko entitate, talde anitzun eta elkartuetan.....	2.383	-	(45)	2.338
Kredituak eta zorraren balio adierazgarriak .....	-	13	-	13
<b>EPE LUZEKO FINANTZA-INBERTSIOAK</b>	<b>2.383</b>	<b>13</b>	<b>(45)</b>	<b>2.351</b>

(1) Langileei ekitaldian zehar emandako kontsumorako maileguak.

(2) Langileei aurrerakinak eta maileguak itzultzea (ikus A.10).



Udalak 2016ko ekitaldian partaidetza zuen ondoko sozietateetan, bertan adierazitako ehunekoetan:

					Euroak milakotan
SOZIETATEA	% PARTAID.	PARTAID.	(*)	KONT.BALIO	
	% PARTAID.	BALIO NOM.	NARRIAD.	GARBIA	
Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SL.....	% 100	3	E/E	3	
Talleres Gallarreta Lantegiak, SL.....	% 25	1	E/E	1	
Meatzaldeko Behargintza .....	% 20	206	(59)	147	
Abanto-Zierbenako Indutrialdea, SA .....	% 1	44	E/E	44	
<b>GUZTIRA</b>		<b>254</b>	<b>(59)</b>	<b>195</b>	
<b>SALDOA KONTABILITATEAREN ARAB.</b>				<b>2.338</b>	
<b>ALDEA</b>					<b>(2.143)</b>

(\*) 139/2015 FDri jarraikiz, aktibo hauen kasuan, ekitaldi itxieran bada ere, beharrezko diren balorazio-zuzenketak egin beharko dira.

Epe luzeko finantza-inbertsioen saldoak taldeko, talde anitzeko eta elkartuetako sozietateetan 2,1 milioi euroan gainditzen du fiskalizazio lana egitean egiaztu izan diren datuetatik eratortzen den zenbatekoa (ikus II.2 atala).

## A.9 ZORPETZEA

Zorraren bilakaera ekitaldian honakoa izan da:

							Euroak milakotan
			Hasierako	Saldoa			Saldoa
	% interesa	Mugaeg.	saldoa	16/01/01	Amort.	Beriak	16/12/31n
Kutxabank, SA.....	Euríbor 3M + 0,14	2023	5.363	3.018	415	-	2.603
MINECO .....	-	2024	78	70	8	-	62
<b>ERABILITAKO ZORPETZEA GUZTIRA</b>			<b>5.441</b>	<b>3.088</b>	<b>423</b>		<b>2.665</b>

Balantzean ageri den zorpetze-zifrak honako xehapen hau du:

			Euroak milakotan
<b>KONTUA</b>			<b>Saldoa</b>
			<b>2016-12-31</b>
Zorrak kreditu erakundeekin epe luz. ....			2.832
Kreditu erakundeekin epe laburreko zorrak (ikus A.11) .....			410
<b>GUZTIRA</b>			<b>(*) 3.242</b>

(\*) 576.813 euroan gainditzen du erabilitako zorra, kontabilizatzean izandako akatsen ondorioz (ikus II.2).



## A.10 ZORDUNAK

Hona hemen balantzearen aktibo arruntean erregistraturiko zordunen eta kobratzeko beste kontu batzuen saldoen xehapena, 2016ko ekitaldi itxieran:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	AURREK.	AURR.KANP.	MAILEGU.	SALDOA
ZORDUNAK	ZORDUN.	PERTSON.	16/12/31	
Zordunak eta epe laburrera kobratzeko beste kontu batzuk.....	1.591	8	-	1.599
Epe motzeko finantza inbertsioak .....	124	-	(*) 68	192
<b>AKTIBO ARRUNTEKO ZORDUNAK ETA BST. KONTU BATZUK GUZTIRA</b>	<b>1.715</b>	<b>8</b>	<b>68</b>	<b>1.791</b>

(\*) 2016ko ekitaldi itxieran kitatutako zenbatekoa, kobrantzak epe luzera finantza inbertsioen idazpuruari egotzi zaizkiola, bai 2016ko ekitaldian, bai aurreko ekitaldietan ere (ikus A.8).

### Aurrekontuko zordunak

Hona hemen 2016ko abenduaren 31n kobratzeko dauden Udalaren aurrekontuko eskubideen osaera eta antzinatasunaren xehapena:

KAPITULUAK	Euroak milakotan				
	2013 eta lehen.	2014	2015	2016	GUZTIRA
Zerga zuzenak.....	1.701	320	365	116	2.502
Zeharkako zergak.....	560	33	171	114	878
Tasak eta bestelako sarrerak.....	367	20	52	54	493
Transferentzia arruntak .....	-	-	16	-	16
Ondare sarrerak .....	16	2	1	3	22
Inbertsioen betterentzea .....	576	10	21	-	607
Kapital transferentziak .....	24	-	-	324	348
<b>AURREKONTUKO ZORDUNAK GUZTIRA</b>	<b>3.244</b>	<b>385</b>	<b>626</b>	<b>611</b>	<b>4.866</b>
<b>Zalantzako kobragarritasuneko saldoak</b>					<b>(3.151)</b>
<b>AURREKONTUKO ZORDUNAK GUZTIRA NARRIADURATIK GARBI</b>					<b>1.715</b>

Kobratzeko dauden aurrekontuko saldoei dagokienez, zehaztu behar da ez direla 2013ko ekitaldiaz geroztik derrigorrezko bidean bildutako kopuruak deduzitu (ikus A.3, A.11 eta II.2 atala). Gainera, zerga zuzenen kapituluan ekitaldi itxietako kobratzeko dagoen saldoa 871.824 euroan gehitu da eta lotutako zalantzazko kobragarritasuneko saldoen balioespresa, berriz, 584.033 euroan (ikus A.3 eta II.2 atala).

BLHren toki entitateen aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 FAren 48.7 artikuluak agintzen du 24 hilabetetik gorako antzinatasuna duten behar bezala aitortutako eskubideak kobragaitz edo kobraezintzat joko direla. Aurreko taulan ageri den zalantzako kobragarritasuneko saldoen zifra kalkulatzeko, Udalak aipatutako eskubideen % 86,84 soilik hartu du aintzat. Eskubide kobragaitz edo kobraezinen balioespresa 477.550 euroan gehitu behar litzateke (ikus II.2 atala).



## A.11 HARTZEKODUNAK

Epe laburrean ordaindu beharreko kontuen xehapena 2016ko abenduaren 31n honakoa da:

	Euroak milakotan
<b>KONTZEPTUA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
<b>AURREKONTUKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>969</b>
<b>HARTZEKODUN EZ AURREKONTUKOAK</b>	<b>2.161</b>
Epe laburrera jasotako bermeak eta gordailuak .....	1.940
PFEZ kontzeptuan Ogasun Publiko hartzekoduna .....	186
Bestelako hartzekodun ez aurrekontukoak.....	35
<b>APLIKATZEKO DAUDEN KONTU-SAILAK</b>	<b>(*) 557</b>
<b>BESTELAKOAK</b>	<b>725</b>
Kreditu erakundeekin epe laburreko zorrak (ikus A.9) .....	410
Aurrekontuari ezartzeko dauden gastuak (ikus A.6) .....	315
<b>PASIBO ARRUNTA GUZTIRA</b>	<b>4.412</b>

(\*) Saldo honen zatirik handiena, 523.273 eurorena, BFAk derrigorrezko bidean bildutako kopuruei dagokie, 2013ko maiatzean diru-bilketa hau bere gain hartu zuenez geroztik (ikus A.3 eta II.2 atala).

### Aurrekontuko hartzekodunak

Aurrekontuko hartzekodunen saldoaren xehapena, dagozkion obligazioen aitortza gertatu zen ekitaldiaren arabera, honako hau litzateke:

	Euroak milakotan
<b>JATORRIZKO EKITALDIA</b>	<b>SALDOA</b>
1996.....	27
2002.....	7
2003.....	22
2004.....	2
2005.....	38
2009.....	39
2011.....	3
2015.....	2
<b>EKITALDI ITXIETAKO AURREK. HARTZEKODUNAK</b>	<b>140</b>
2016.....	829
<b>AURREKONTUKO HARTZEKODUNAK GUZTIRA</b>	<b>969</b>

Ekitaldi itxietako ordaintzeko zeuden zorrik gehienak, 138.134 eurorenak, jada kitatuak zeuden 2016ko ekitaldi itxieran; ordea, ordainketak, oker, ordainketak egin ziren ekitaldietako aurrekontu arruntei egotzi zitzaizkien, zorrak jada aurrekontu itxien kontu-saiiletan erregistratuak zeudela aintzat hartu gabe (ikus II.2 atala).



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Pùblicas

## Epe laburrera jasotako bermeak eta gordailuak

Epe laburrera jasotako berme eta gordailuen kontuaren mugimendua 2016an zehar honakoa izan da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	SALDOA 16/01/01	GEHIK.	MURRIZK.	SALDOA 16/12/31
"SUAE LC-01" birpartzelatzeko proiektua: kalteordaina esleit. (Ikus A.13) .....	-	1.721	(847)	874
"SUAE LC-01" birpartzelatzeko proiektua: aprobetx. monetariz. (Ikus A.13) .....	-	680	-	680
Gainerako kontzeptuak.....	319	114	(47)	386
<b>EPE LABURRERA JASOTAKO BERMEAK ETA GORDAILUAK</b>	<b>319</b>	<b>2.515</b>	<b>(894)</b>	<b>1.940</b>

Hirigintzako jarduerak sortutako gainbalioetan komunitatearen partaidetzari dagozkion sarrerei eman zaien aurrekontuz kampoko tratamendua ez da zuzena, izan ere inbertsio errealak besterentzeko kapituluaren erregistratu behar ziratekeen (ikus II.2 atala).

## A.12 DIRUZAINZA

Ekitaldi itxieran Udalaren Diruzaintza honako xehapenaren arabera zegoen osatura:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	SALDOA 16/12/31	
Kutxa eta kutxa finkoko aurrerakinak.....	11	
Kontu korronteak .....		3.453
Eperako ezarpenak .....		500
<b>GUZTIRA</b>		<b>3.964</b>

## A.13 HIRIGINTZAKO JARDUERAK ETA PLANGINTZA

Udalatzak 2010eko uztailaren 29an behin betiko onartu zuen zati batean udalerriko hiri lur eta urbanizagarriaren HAPO, Petronor inguruko industria-lurzoruari dagokionez, behin betiko onesprena indarrik gabe mantenduz. 2012ko abenduaren 27an, bestalde, Udalatzak HAPO behin betiko zati batean onartzeko erabakia hartu zuen, kasu honetan lurzoru ez urbanizagarriari buruzkoa, zeinak Petronor inguruko industria-lurzoruari dagokionez, behin betiko onesprena indarrik gabe mantentzen baitzuen. Erabaki horiek eta horien bidez onartutako hirigintzako araudiaren testu osoa BAOn argitaratu ziren 2010eko irailaren 28an eta 2013ko apirilaren 11n, hurrenez hurren. Gerora, HAPoren unean uneko aldaketak onartu dira.



Petronorko eremuan HAPoren onesprena indarrik gabe mantentzeko arrazoia Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak jaulkitako aukako txostenean zetzan, 2012ko azaroaren 23ko erabaki bitartez. Udalak erabaki horren aurka administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkeztu zuen, zeina 2014ko maiatzaren 30eko EHJANaren epaitza bidez ezetsi baitzen. Adierazitako eremuan ezartzekoak dira 1992ko HAPoren zehaztapenak.

### **"SUAE LC-01" industria-sektorea**

Udalatzak 2012ko apirilaren 12ko erabaki bitartez, SUAE-LC-01 Sektore Teknologikoaren Plan Partziala onartu zuen, urte bereko abuztuaren 1eko BAOn argitara eman zena. 2015eko urtarrilean Udalak hitzarmena izenpetu zuen Teknologi Elkartegia, SA soziitate publikoarekin, zeinaren indarrez soziitate honen gain Kooperazio sistemaren kudeaketa eta sektorearen urbanizazioa eskuordetzen baitzen. Soziitateak, berebat, birpartzelatzeko proiektua idazteko obligazioa hartzen zuen, Tokiko Gobernu Batzarrak behin betiko 2015eko abenduaren 10ean onartu zuena, hark eskatuta (abenduaren 18ko BAO).

Eraikuntza, lursail eta bestelako eskubideak eraistetik erorritako kalte-ordinen eta esleipen-hutsengatik konpentsazio ekonomikoen ordainketari aurre egiteko, aipatutako birpartzelazio proiektuari jarraikiz, Udalak Teknologi Elkartegia, SA eta BFArengandik, hurrenez hurren, 1,6 milioi euro eta 92.948 euro jaso zituzten (ikus A.11).

Udalari laga beharreko hirigintzako kargetatik libre dagoen irabazi asmoko hirigintzako aprobetxamenduaren % 15i dagokionez, % 91,93, 8 lursailetara mugatu zen, 55.780 m<sup>2</sup>-ko azaleraduna. Gainerako % 8,07, gutxienez lursail baten erabateko jabetza izateko adina osatzen ez zuenez, 680.249 euroren konpentsazio ekonomikoarekin ordeztu zen, Teknologi Elkartegia, SAk aurreko paragrafoan aipatutako zenbatekoarekin batera ordaindu zuena (ikus A.11).

### **A.14 ABANTO-ZIERBENA ZERBITZUAK, SL**

2008ko otsailaren 19ko udalatzaren erabakiz onartu ziren Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SL soziitatearen estatutuak, urte bereko irailaren 5eko erregistroan erregistratu zena. Aipatutako estatutuei jarraikiz, Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SL soziitatearen helburuak besarkatuko luke obra mota ororen egikaritza, udal zerbitzu ororen prestazioa, udalerriko ondasunen zaintza eta kudeaketa eta hainbat eremu sustatzeko ekintza gauzatzea (ekintzaileta, kultura, garapen sozio-ekonomikoa eta lurrazen sustapena). Soziitatearen egitekoa 2016ko ekitaldian Tokiko Garapen Agentziaren kudeaketa eta kultura, gazteria, kirola, jai eta ingurumeneko jarduera eta programak antolatu, kudeatu eta garatzea izan zen (Tokiko Agenda 21 nagusiki).



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Pùblicas

## Diru-sarrerak

Organismoaren finantzaketa-iturri nagusia jasotzen dituen transferentzia eta diru-laguntzek osatzen dute, dela Udaletik, dela beste administrazio publiko batzuetatik, sozietatearen ustiaketako sarreren azterketak erakusten duen legez; hona hemen 2016an zuten osaera:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	8
Bestelako ustiapen sarrerak: Diru-laguntzak .....	483
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea .....	24
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>515</b>

Sozietateak jasotako ustiapeneko transferentzia eta diru-laguntzek eragindako diru-sarrerak erregistratzen ditu egiaz gauzatutako gastuen arabera eta kapitalekoak, berriz, dagozkion aktiboen amortizazioaren arabera. Honekin baterako taulan ekitaldian jasotako ustiaketako diru-laguntzak eta egoztek dauden saldoen bilakaera laburbildu dugu:

	EGOTZI	EMAKIDA	EGOTZI	GABEAKEK
	GABEAKEK	BERRIAK	EMAIZT.	GABEAKEK
	2016/01/01	2016	EGOTZIAK	2016/12/31
Udal erakundearen administratziotik (ikus A.7).....	5	430	409	26
EErenak: Lanbide .....	-	130	55	75
EErenak: Kontsumobide.....	-	14	14	-
BFAtik.....	-	81	5	76
<b>USTIAKETAKO DIRU-LAGUNTZAK</b>	<b>5</b>	<b>655</b>	<b>483</b>	<b>177</b>

Sozietateak erregistratu duen udal ekarpenari dagokion zifra Udalak erregistratu duena baino 18.585 euro txikiagoa da (ikus A.7), izan ere, sozietateak azken ordainketa –kopuru horretakoa- 2017an erregistratu du.

## Langileria

Sozietateak 2016ko ekitaldian erregistraturiko langile gastuen xehapena honakoa da:

	Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA	PERTS. KOP.
<b>LANGILE LAN KONTRATUDUN FINKOAK</b>	<b>121</b>	<b>3</b>
Soldatik eta ordainsariak .....	92	
Gizarte Segurantza .....	27	
Elkarkidetza .....	2	
<b>LANGILE LAN KONTRAT., LANBIDE 2016/2017 ENPLEGU-PLANA</b>	<b>55</b>	<b>25</b>
Soldatik eta ordainsariak .....	41	
Gizarte Segurantza .....	14	
<b>GUZTIRA</b>	<b>176</b>	<b>28</b>



## A.15 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

Kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak berrikusi ditugu ondasun arrunt eta zerbitzu eta inbertsioetako gastuen hamabi kontraturen lagin bat hartuta: Udalak esleitutako hamar kontratu eta bi, Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLk:

KONTRATUA	DATA	ESLEIPENA PROZED. ZENBATEKOA	Euroak milakotan		
			GASTUA 2016	AKATSAK A	AKATSAK B
<b>OBRAK</b>					
1. Euskal Herriko Meatz. Kultura eta Ingurumen Parkea .....	(urr-15)	Irekia	1.221	953	
2. Rubiasko tunelaren ahoa sendotzea .....	(mai-16)	PGPN	134	133	B1,2
<b>ZERBITZUAK</b>					
3. Udal eraikinen eta zerbitzu osagarrien garbiketa.....	(uzt-16)	AHM	825	34	
4. Bide garbiketa, hiri hondakinen bilketa eta garraioa .....	aza-16	Irekia	1.900	-	B3
5. Etxerako laguntza zerbitzua.....	aza-16	Irekia	AP	41	A1
6. Udal kiroldegien kudeaketa .....	ots-16	Irekia	1.339	446	
7. Esku-hartze sozialerako indartze teknikoa.....	eka-15	Irekia	63	63	
<b>HORNIDURAK</b>					
8. Kiroldegrako ekipamendua hornitu eta instalatzea.....	ira-16	PGPN	70	-	B1
9. Muinoan argiteria hornitu eta instalatzea .....	aza-15	Irekia	106	-	
<b>PRIBATUA</b>					
10. Udal aseguruak .....	abe-15	Irekia	48	48	
<b>UDALA GUZTIRA</b>			<b>5.706</b>	<b>1.718</b>	
<b>ZERBITZUAK</b>					
11. Tokiko Garapen Agentziaren enplegu eta prestakuntza zerbitzuak .....	abe-14	Irekia	65	65	A2
12. Gazteguneren kudeaketa osoa .....	abe-14	Irekia	89	89	A2
<b>ABANTO-ZIERBENA ZERBITZUAK,SL GUZTIRA</b>			<b>154</b>	<b>154</b>	

AKATSAK	EXPEDIENTE KOP.	Euroak milakotan	
		ESLEIPEN	ZENBATEKOA
<b>A IZAPIDETZEA ETA ESLEIPENA</b>			
1. Esleipen ebazpenetan informazio jakin bat ez barne hartzea .....		1	PU
2. Balio judizioetara meneratutako irizpideei emandako balorazioen justifikazio ez nahikoa ....		2	154
<b>B EGIKARITZA</b>			
1. Kontratua betetzean atzerapenak .....		2	204
2. Ez dago obraren harrera-aktarik.....		1	134
3. Kontratu-estaldurarak gabe egindako gastuak .....		1	(*) 697

(\*) Akatsen eragina jasandako gastuen zenbatekoa (ikus II.1 atala).



## A.16 FINANTZA ETA AURREKONTUKO ADIERAZLEAK

Kontuen Epaitegiaren Tokiko Esparruko koordinazio batzordeak eta autonomia erkidegoetako Kanpo Kontrolerako Organoek 2013ko maiatzaren 7an norbere erakundeek egindako fiskalizazioetan adierazle jakin batzuk erabiltzea onartu zuten, gerora toki administrazioarentzat kontabilitateko jarraibide berrietara egokitutako direnak. Honekin baterako taulan esanguratsuen iritzitako haien jaso ditugu:

IZENA ETA KALKULUA	(a)2014	(a)2015	2016
<b>FINANTZA ADIERAZLEAK</b>			
Berehalako likidezia (funts likidoak/hartzekodunak epe laburrera) .....	% 80	% 58	% 79
Epe laburreko likidezia (funts likidoak eta kobratzeko eskub. (epe laburreko hartzekod.).....	% 252	% 224	% 119
Diru-sarrera errepikarien bilakaera.....	(% 1)	(% 1)	(% 6)
Egiturazko gastuen bilakaera .....	(% 1)	% 1	% 33
Sarrera korronteen gaineko finantza zorpetzea .....	% 37	% 33	% 31
<b>AURREKONTUAREN ADIERAZLEAK</b>			
Autonomia fiskala (sarrera fiskalak/sarrerak guztira) .....	% 39	% 34	% 35
Ixitako ekitaldietaiko kobrantzak gauzatzea (diru-bilketa/hasierako kobratzekoa).....	% 2	% 1	% 2
Inbertsio ahalegina (6. eta 7. kap. obligazioak /obligazio aitoratuak) .....	% 7	% 16	% 14
Aurrezki gordin ez finantzarioaren indizea (aurrezki gordin ez finantz./sarrera arruntak).....	% 12	% 7	% 7
Sarrera arruntengatiko geldikina (Geldikina/sarrera arruntak) .....	% 9	% 8	% 12
Zalantzako kobragarritasuneko zordunen indizea (zalantz.kobr.saldoa/kobratzekoa) .....	% 88	% 70	% 65

(a) HKEEK fiskalizatu gabeko ekitaldiak.

Egoeraren balantzko “Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk” idazpuruan diruzaintzako soberakinak gordetzeko finantza kontuetan dauden funts likidoak barne hartzen dira; horiek, baina, “Epe laburreko finantza inbertsioak” idazpuruan birsailkatu behar lirateke. Funts horiek, 2016ko ekitaldi itxieran 500.000 euro egiten zutenak, ez dira aintzat hartu erantsitako taulako likidezia ratioak kalkulatzeko.





## **ABANTO Y CIERVANA/ABANTO-ZIERBENAKO UDALAREN ALEGAZIOAK**

### **II. IRITZIA**

#### **II.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

##### **KONTRATAZIOA**

*“1. 2016ko ekitaldian kontratu bidezko estaldurarak gabe hainbat gastu gauzatu ziren, bide garbiketa zerbitzuei, hiri-hondakin solidoen bilketari eta zerbitzu osagarriei zegozkienak, 696.998 euroren zenbatekoan, harik eta kontratu berria indarrean sartu zen arte, urte horretako azaroan esleitu zena.”*

Adierazitako bideak garbitzeko, HHSak biltzeko eta zerbitzu osagarriak emateko kontratua 2016ko otsailaren 29an amaitzen zen, baina Abanto Zierbenako Tokiko Gobernu Batzordeak hori luzatzea erabaki zuen, hurrengo kontratua formalizatu arte. Beste kontratu hori 2016ko abenduaren 12an egin zen. Hortaz, Udalaren aldetik akordioa egon zen kontratuarekin jarraitzeko, eta, beraz, baita zerbitzu horiei dagozkien gastuak exekutatzeko ere.

Halaber, adierazi behar da kontratazio-espedienteen izapideetan atzerapenak izan direla 2015eko bukaeratik 2016ko apirilera bitartean, pleguak egiteaz arduratzen den administrazio orokorreko teknikaria aldi baterako ezintasun-egoeran egon zelako.

*“2. Udalak 2016ko ekitaldian energia elektrikoa hornitzeko zerbitzua kontratatu zuen, guztira 409.942 euroren zenbatekoan, esleipen prozedurari dagozkion betekizunak saihestuta eta SPKLTBren 86.2 artikuluak xedatutakoa urratuz. Kontratazio hori, baina, arautze harmonizatuari lotutako kontratuetarako aurreikusitako izapidetzeari meneratu behar zitzaioken.”*

Esan beharra dago prestazio horren bitartez Udala Bizkaiko Kontratazio Zentralak izapidetutako esparru-akordioan sartu dela. Foru Aldundia arduratu da akordio hori esleitzeaz, eta horren kontratua 2017ko abenduaren 19an formalizatu zen. Halaber, Udalak dagokion kontratua formalizatu du esleipendunarekin.

Udalak energia elektrikoa sistema horren bitartez izapidetzea erabaki du, gastuak aurrezteko eta baldintza ekonomiko onuragarrienak lortzeko helburuarekin. Horrela, gastu publikoa murriztea lortuko dute; izan ere, Zentralaren kontratazio-bolumenari esker (62 erakundek egin dute bat Esparru Akordioarekin) hornitzaleek prezio lehiakorragoak eskaini ditzakete, eta hori onuragarria da Udalarentzat. Sistema horri esker, halaber, kudeaketa eraginkorragoa lor daiteke, izapidetzea simplifikatu daiteke eta eskuratze-denbora murritzua daiteke.



## II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

*“1. Epaitegi honen iritzira egin behar ziratekeen doitzek ondotik zehaztutako eragina dute Udalaren 2016ko abenduaren 31ko Diruzaintza Geldikinaren, Egoera Balantzearen eta Funts Propioen gainean.”*

HKEEk proposatutako doikuntza negatiboak, 2016ko Diruzaintzako soberakinean eginikoak, oro har, bai diru-sarreren bai gastuen sortzapen-irizpideari zor zaizkio, eta Epaitegiak aztertutako ekitaldi amaieran estimatutako soberakina alda dezakete. Hala ere, soberakinak izaera metagarria duenez, ez luke eraginik izango Udalatzaren gaur egungo soberakinean.

*“2. Udalaren Kontu Orokorra ez zaio egokitzen Bizkaiko toki entitateen kontabilitateko izapidean ezarritakoari, 139/2015 FD bidez onartutakoa, izan ere, ez ditu jasotzen ondare garbian aldaketen egoera, eskudiruzko fluxuen egoera, ezta toki entitatearen memoria ere.”*

Epaitegiak aipatzen dituen hiru dokumentuei dagokienez, Udaleko kontabilitateko aplikazio informatikoaren bidez egin ziren. Ez zeuden paperean inprimatuta Kontu Orokorraren administrazio-espaldietean, ezta Epaitegiari igorritako dokumentazioan ere.

*3. BFAk 2013ko maiatzaz geroztik betearazte-bidean bildutako kopuruei dagokienez, ez dira aurrekontuan erregistratu berandutza eta premiamenduko gainkarguen interesei dagozkien diru-sarrerak. Zorren printzipalari dagokionez, zorrak bidegabeki ordaindu gabe modura ageri diren kasuetan kobrantzak erregistratu ez direlako, atxikitako narriadura deuseztatzea da egokia bi urtetik gorako antzinatasuna duten haien kasuetan (ikus A.3 eta A.11).*

Aldundiak bidalitako dokumentazioa ez da nahikoa bidalitako zorrei kobrantzak egotzi ahal izateko. Bi urtetik gorako antzinatasuna ez da aintzat hartu soberakinaren kalkuluan, aplikatzeko dauden diru-sarrerak kobratzeko dagoen zenbatekoari kendu baitzaizkio, besteak beste, beste edozein gastutarako finantzaketa-iturri izan ez daitezen. Hala ere, informazio gehiago eskatzeko konpromisoa hartu da, kobratzeko dauden saldoak garbitu ahal izateko.

*“4. Ez dago euskarri egoki edo behar adinakorik Udalaren Balantzean jasotako ibilgetu ez finantzarioaren saldoak 2016ko abenduaren 31ko ondasun eta eskubideen egiazko egoerarekin bat datozen ondorioztatzen utziko duenik, ezargarriak zaizkion printzipio eta balorazio irizpideei jarraikiz (ikus A.8).”*



Euskarri egoki eta nahikoa dago. Kanpoko enpresa batek eta Kontabilitate sailak eginiko aktibo ez-korrontearen guztizko saldoen arteko aldea honi zor zaio: inventarioaren urteko eguneratzean ekitaldi bakoitzaren akten eta bajen kontu hartu zen, hasierako saldoa kontabilitatearen aldetik zuzendu gabe, zegoen informaziora egokituz. 2017 ekitaldiko Kontu Orokorean, kontabilitatearen eta inventarioaren arteko saldoak egokitu egin dira.

*5. Ez dago euskarri egoki edo behar adinakorik Udalaren Balantzean jasotako epe luzeko finantza-inbertsioen saldoak 2016ko abenduaren 31ko ondasun eta eskubideen egiasko egoerarekin bat datozen ondorioztatzen utziko duenik, ezargarriak zaizkion printzipio eta balorazio irizpideei jarraikiz (ikus A.8).*

Euskarri egoki eta nahikoa dago. Epe luzeko finantza-inbertsioen saldoek ez zituzten barne hartzen langileei emandako maileguen itzulketak, aurrekontuko kontabilitatetik ondarekora aldatzeko tauletan konfigurazio arazo bat egon baitzen. Saldoa 2017 ekitaldiko Kontu Orokorean zuzendu da. Bestetik, 2005ean likidatutako udal-sozietate baten partaidetza bat erregistratuta zegoen. 2017 ekitaldiko Kontu Orokorean, kontabilitatearen eta inventarioaren arteko saldoa egokitu egin da.

### **III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK**

#### **III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA**

*“2016ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra ez zen 2015eko abenduaren 31 baino lehenago behin betiko onartu, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 FAREN 15.2 artikuluak agintzen duen moduan (ikus A.2).”*

Hasierako onespina 2015eko abenduaren 17ko osoko bilkuran egin zen. Ondoren, espedientea jendaurrean jarri zen 15 eguneko epean, 2015eko abenduaren 21eko BAOn argitaratuta. 2016ko urtarrilaren 19an behin betiko onespina argitaratu zen, eta egun horretan bertan sartu zen indarrean. Aurreko ekitaldiko aurrekontua luzatu zen, aurrekontu-arauidian jasotzen denari jarrikiz. Nolanahi ere, ez zen kalterik izan gastuaren betearazpenean, aurrekontuaren luzapena 19 egunez egin baitzen soilik indarrean.

*“2016ko ekitaldian aurrekontuaren egonkortasun helburua bete izanari buruzko tokiko Kontu-hartzaitzaren txostenetan egitea Udalari soilik zegokion, ez mendeko duen Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SL entitateari; gainera, egindako kalkuluek ez zituzten Nazio eta Lurraldeko Kontuen Europako Sistemaren arabera ezargarriak diren doiketak txertatzen (1463/2007 Errege Dekretuaren 16.2 artikulua, azaroaren 2koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzeko araudia onesten duena, toki entitateei dagokienez).”*



Kontu Hartzaitzaren txostenean jasota ez badago ere, KESen araberako baterakuntza eta doikuntzak egin ziren, eta Toki Erakundeen Laguntzarako Foru Zerbitzuari epe barruan igorritako formularioetan islatu ziren.

*“2016ko ekitaldian Udalak 244.264 euroren zerga-sarrerak kontabilizatu zituen transferentzia eta diru-laguntza arrunten kapituluau (ikus A.4).”*

OHZren eta EJZren urteko likidazioari zegozkion hiru diru-sarrera izan ziren, eta 2015eko Udalkutxaren urteko likidazioarekin denboran bat egin zutenez, oker batengatik guztiak sartu ziren kapitulu berean. Nolanahi ere, ez dituzte balantzea eta emaitzen kontua aldatzen, eta ez diote eragiten idatzitako urteko kontuen fideltasunari.

*“Udalak transferentzia eta diru-laguntzen kapituluau ondasun eta zerbitzuen kontrataazioari dagozkion gastuak, nagusiki kultur ekintza eta festen ospakizunekin edo gizarte zerbitzuen arloarekin lotutakoak; ordea, zuzena gastuen bigarren kapituluari egoztea litzateke (ikus A.7).”*

Udal-sozietateak gastu gisa kontabilizatzen du, eta aintzat hartuta sozietateak Udalarekin bat egiten duela, gastuak urteko kontu bateratuen 2. kapituluau agertzen dira.

*“Langileari emandako aurrerakin eta maileguen itzulketak ez dira kontabilitatean emakidak erregistratzen diren kontu berean erregistratzen eta kontularitzako saldoak egiazko saldoa 69.325 euroan gainditzen du 2016ko ekitaldi itxieran, ondoko taulan ikus daitekeen moduan.”*

Ohar horri dagokionez, 5. iritzian adierazitakoari lotzen gatzaizkio.

### **III.2 SARRERA FISKALAK**

*“Udalak 2013ko maiatzean hitzarmen bat izenpetu zuen BFArekin nahitaezko diru-bilketaren kudeaketa gauzatzeko. Gerora BFAk aipatutako hitzarmena aplikatuta egindako kobrantzengatik transferitutako kopuru guztiak identifikatu gabe daude, aplikatzeko zain dauden kobrantzen kontu-sail batean (ikus A.3 eta A.11). Udalak ez daki zein zergadunek egin dituzten ordainketak eta zein kontzeptutarako.”*

Ohar horri dagokionez, 3. iritzian adierazitakoari lotzen gatzaizkio.

*“Hiri izaerako lursailen balioaren igoeraren gaineko zergaren likidazioak (HILBIZ) atzerapen handiz egin dira Udalean eta fiskalizazio-gai izan den ekitaldian*



*kontabilizatutako sarrerak eraikinen transmisioei dagozkie, oro har hiru urte lehenago egindakoenaenak.”*

Erabaki zen zentzuzkoena zela zerga hori arautzen duen araudiari buruz zegoen ezjakintasun juridikoa ebatzi arte itxarotea. Eta hori ebatzi denean, likidatzen hasi da.

### III.3 LANGILERIA

*“Udalaren Lanpostu-zerrenda ez zaio plantillaren egiturazko beharrizanei egokitzen eta behar horiei zerbitzu enpresen kontratazio bidez erantzuten zaie. Adierazitako prozedura erabili izanaren ondorioz, 2016ko ekitaldi itxieran lan kontratu mugagabe ez finkoko izaera zuen langile bat zegoen funtzionarioentzat gordeta behar luketen egitekoak betetzen, EFPLren 19. artikuluari jarraikiz.”*

Estatuko aurrekontu orokoren legeak zenbait muga ezartzen ditu urtero lanpostuak eta plazak sortzeari dagokionez; hori dela eta, zaila da plantilla benetako beharretara egokitzea. Bestalde, kontratuengandik legeriak ez du debekatzen zerbitzu-enpresak kontratatzea. Gainera, 2012ko abenduaren 28an, 816 zenbakiko Alkatetza Dekretuaren bidez onetsi ziren tokierakundeek kanpoko zerbitzuak behar bezala kontratatzeko jarraibideak, lan-harreman bat aitortzeko erabakigarritzat jo daitezkeen egintzak saihesteko. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legean, 84.-85. artikuluetan, tokiko zerbitzu publikoak zuzenean eta zeharka kudeatzeko aukera ezartzen da; hortaz, zerbitzu-enpresak kontratatzea baimentzen da.

Aipatu behar da langile bat lan-kontratu mugagabe ez-finkoarekin egotearen arrazoia ez dela izan zerbitzu-enpresa bat kontratatu izana; langileen legez kanpoko lagapena egon da tarteak. Kultura-zerbitzua Abanto-Zierbena Zerbitzuak SL udal-enpresa publikoaren esku utzi zen (aurrerantzean, AZZ SL) 2010eko uztailaren 29ko osoko bilkuran onetsitako kudeaketa-aginduaren bidez. Era berean, AZZ SLk ENKARTUR erakundea azpikontratatu zuen zerbitzu hori emateko. Azpikontratutako pertsonak erreklamazio bat jarri zuen, langileen legez kontrako lagapena egon zelako eta, 10. zenbakiko lan-arloko epaitegiaren martxoaren 20ko 95/2015 Epaiaren bidez, kondenatu egin ziren Udala, AZZ SL enpresa publikoa eta ENKARTUR erakundea. Horrez gain, interesdunari aukera eman zitzzion nahi zuen lantokia aukeratzeko, eta Udala aukeratu zuen.

Lanpostu hori sortu zenean, 2015eko apirilaren 30eko osoko bilkuran Lanpostu Zerrenda aldatzeko hartutako erabaki bidez, funtzionario gisa sortu zen, hala ezartzen baitu araudiak, gauzatzen dituen funtziak kontuan hartuta. Interesdunak erabaki horren aurkako errekursoa jarri zuen eta, ondorioz, lanpostua lan-kontratudun gisa eratu zen, bat etorriaz Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak emandako 390/2017 Epaiarekin.



*“2016ko urtean egindako aldi baterako lan-kontratuko langileen bi kontrataziotan, epe motzekoak, ez da behar hainbat egiaztatu hautaketa-prozedurarik batere egin denik.”*

Udalak langileak hautatzeko araudia errespetatzen eta betetzen du, baita berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioak ere. Ikastetxea garbitu behar zela eta, langile hori berehala kontratatu behar izan zen, garbiketa-lanak egiteko. Gure lan-poltsan inor ere libre ez zegoenez, emplegu-zerbitzu publikora jo genuen; izan ere, ordu batzuk baino ez genituen garbiketa-ordutegia hasteko.

Lan-poltsa handitu arte itxaron izan bagenu, osasungarritasun-baldintzak kaltetu egingo lirateke, inork ez bailuke garbituko udalerriko ikastetxeetako bat.

Gaur egun lan-poltsak handitu egin dira, eta, existitzen ez diren lanpostuetan, lan-poltsesarako deialdiak egiten ari gara, Udalerako langileak hautatzeko, batez ere premiaz ordezkatu behar diren lanpostuetarako.

### III.5 KONTRATAZIOA

#### Kontratacio espedienteak (ikus A.15)

Ikuskatutako urtean indarrean zeuden hamabi kontratu berrikusi ondoren, honako alderdi hauek detektatu dira:

*“Kontratu baten esleipen-ebazpenak (5 zk. espedientea), aleko prezioetan esleitutakoa, ez zuen ezargarria den hitzarmen kolektiboari buruzko informazioirik barne hartzen, apirilaren 7ko 3/2016 Legeak agintzen duen moduan, kontratacio publikoan klausula sozial jakin batzuk barne hartzeari dagokionez.”*

5. espedientearen (etxeko laguntza zerbitzua) subrogazio-eranskinean zehazten zen Bizkaiko etxeko laguntza zerbitzuaren hitzarmen kolektiboa aplikatu behar zaiela subrogazio-eskubidea duten pertsonei. Kontratuaren Legearen testu bateginaren 120. artikuluan eta zenbait klausula sozial kontratacio publikoan sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 5. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Halaber, kontratua esleitu baino lehen, eskaintza onena egin zuen enpresak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu zuen. Adierazpen horren arabera, aplikatu beharreko hitzarmena Bizkaiko etxeko laguntza zerbitzuaren hitzarmen kolektiboa da.

Beraz, Udalak bazekien zein hitzarmen kolektibo aplikatuko zitzaien kontratuaren parte izango ziren langileei, 3/2016 Legean zehazten diren helburuak betetzeko; izan ere, honako hau dio lege horrek: *“Kontratacio publikoa jarduera ekonomiko esanguratsua da, eta haren mende daude kontratu publikoak esleitura dauzkaten enpresa pribatuetan lan egiten duten pertsona asko; horregatik, botere publikoek egiaztatu behar dute laneko betebeharra betetzen direla, eta helburu horrekin onartzen da lege hau”*.



*“Atzerapenak gertatu ziren 203.488 euroan esleitutako bi kontraturen egikaritzan (2 eta 8 zk. espedienteak) eta ez dago jasota luzapenak gauzatu izana. Bietan ere egikaritza epea negoziatu beharreko ezaugarrietako bat izan zen esleipenduna hautatzeko orduan eta berandutzeak egikaritza epeen gainean % 300dik gorakoak izan ziren.”*

2. espedienteari dagokionez (Rubiaseko tunela egonkortzeko lanen kontratua), Rubiaseko tuneleko lanak epe barruan amaitu zituzten. Xehetasun txiki batzuk amaitu gabe gelditu ziren; hala ere, 2016ko uztailaren 22an tunela ireki zuten. Laburbilduz, bi asteko atzerapena egon zen, eta ez lau astekoa, hasiera baten aurreikusi zuten moduan.

8. espedienteari dagokionez (gimnasiorako ekipamendua hornitu eta instalatzea), gimnasiorako makinak esleipendunak eskainitako astearen barruan hornitu eta instalatu zituzten, pisuak gordetzeko altzaria izan ezik. Hori dela eta, harrera-akta hiru aste beranduago sinatu zuten. Hala ere, gimnasioak zerbitzuak ematen jarraitu zuen, aurretik zeukaten armairua erabili baitzuten pisuak gordetzeko. Beraz, atzerapenak ez zion kalterik egin Udalari.

*“133.986 euroren zenbatekoan esleitutako obra batean (2 zk. espedientea) ez dago jasota dagokion harrera-akta egin zenik (SPKLTBren 234.2 artikulua).”*

2. espedienteari begira (Rubiaseko tunela egonkortzeko lanen kontratua), dokumentu bat sinatu zuten, zehaztuz lanak proiektuaren arabera egin direla eta obraren zuzendariaren oniritzia dutela. Horrez gain, zehaztu zuten lanek exekuzio-proiektuaren preskripzioak bete dituztela eta dagoeneko amaitu dituztela. Beraz, SPKLTBren 235.2 artikuluan xedatutakoa bete zuten.

*“Udalak ez du prozedura negoziatu bitartez administrazio-kontratazioko derrigorrezko espedientea izapidetu, gas-hornidurari dagozkion 48.703 euroren gastuen egikaritzan.”*

Esan beharra dago prestazio horren bitartez Udala Bizkaiko Kontrataazio Zentralak izapideutako esparru-akordioan sartu dela. Foru Aldundia arduratu da akordio hori esleitzeaz. Halaber, Udalak dagokion kontratua formalizatu du esleipendunarekin.

Udalak gas-hornidura sistema horren bitartez izapidetea erabaki du, gastuak aurrezteko eta baldintza ekonomiko onuragarrienak lortzeko helburuarekin. Horrela, gastu publikoa murriztea lortuko dute; izan ere, Zentralaren kontrataazio-bolumenari esker hornitzaireek prezio lehiakorragoak eskaini ditzakete, eta hori onuragarria da Udalarentzat. Sistema horri esker, halaber, kudeaketa eraginkorragoa lor daiteke, izapidetea simplifikatu daiteke eta eskuratze-denbora murritzua daiteke.



### **III.6 BESTE BATZUK**

#### **Gardentasuna**

*“Abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoari jarraikiz, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, udalek aldiakaldiak eta modu eguneratuaren argitara eman beharko dute informazioa, zeinaren ezagutza garrantzizkoa den euren jardueraren gardentasuna bermatzeko, jarduera publikoaren funtzionamendu eta kontrolari dagokionez. Lege hau zuzen betetzeako Udalak web orrian argitaratu behar lituzke, besteak beste, urteko kontuak, aurrekontuaren egikaritzari eta aurrekontuaren egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzko informazioa eta tokiko ordezkarien ondasun eta jardueren urteko aitorpenak.”*

Dokumentu batzuk ez dituzte argitaratu oraindik. Estatuko Aurrekontuen Legeak ezarritako mugen eta aurrekontu-egonkortasunaren ondorioz ezin izan dira baliabide material nahiz giza baliabide egokiak lortu araudian zehaztutako guztia betetzeko. Dena dela, argitaratzeko eta araudian xedatutakora egokitzen ahaleginak egiten ari dira.

### **IV. FINANTZA ANALISIA**

*“Diruzaintza geldikina: 2016ko ekitaldia 2 milioi euroren Gastu Orokorrerarako Diruzaintza Geldikinarekin kitatu da. Alabaina, HKEE honek proposatu dituen doikuntzak aintzat hartuz gero, magnitude hau 1,3 milioi eurotara murriztuko litzateke eta Gastu Orokorrerarako Diruzaintza Geldikina, berriz, 853.704 eurotara gehitu.”*

Ohar horri dagokionez, 1. iritzian adierazitakoari lotzen gatzaizkio.



## ABREVIATURAS

AG	Administración General.
BDNS	Base de Datos Nacional de Subvenciones.
BOB	Boletín Oficial de Bizkaia.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
DA	Disposición Adicional.
DF 139/2015	Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 139/2015, de 28 de julio, por el que se aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales de Bizkaia.
DFB	Diputación Foral de Bizkaia.
EELL	Entidades Locales.
IBI	Impuesto sobre Bienes Inmuebles.
IAE	Impuesto sobre Actividades Económicas.
ICIO	Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.
IVTM	Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.
IIVTNU	Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.
LFPV	Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.
LGS	Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
LRBRL	Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.
MINECO	Ministerio de Economía, Industria y Competitividad.
NF	Norma Foral.
OARC	Órgano Administrativo de Recursos Contractuales.
PGOU	Plan General de Ordenación Urbana.
PIB	Producto Interior Bruto.
PMS	Patrimonio Municipal del Suelo.
PNSP	Procedimiento Negociado Sin Publicidad.
PU	Precios Unitarios.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
RSU	Residuos Sólidos Urbanos.
RTGG	Remanente de Tesorería para Gastos Generales.
SARA	Sujeto a Regulación Armonizada.
THB	Territorio Histórico de Bizkaia.
TRLCSP	Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Pùblicas

- TS Tribunal Supremo.  
TSJPV Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.  
TVCP Tribunal Vasco de Cuentas Pùblicas.



## I. INTRODUCCIÓN

El TVCP, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Programa de Trabajo aprobado por el Pleno, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Ayuntamiento de Abanto y Ciérvena - Abanto Zierbena para el ejercicio 2016.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legalidad: Revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, ingresos de derecho público, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, servicios y suministros, y concesión de subvenciones. Dicha revisión comprende el ejercicio de fiscalización, sin perjuicio de las comprobaciones relativas a otros ejercicios que se estimen necesarias, por tener incidencia en el fiscalizado.
- Contabilidad: Conformidad de la Cuenta General con los principios contables que le son de aplicación. La Cuenta General contiene el balance, la cuenta del resultado económico-patrimonial y la memoria del Ayuntamiento y de la sociedad municipal Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SL. Por lo que al Ayuntamiento se refiere incluye, asimismo, la liquidación de sus presupuestos.
- El alcance del trabajo no ha incluido un análisis específico sobre la eficacia y eficiencia del gasto ni sobre los procedimientos de gestión. No obstante, los aspectos parciales que han surgido en la fiscalización están comentados en el epígrafe III de este Informe.
- Análisis financiero de la situación económica del Ayuntamiento.

El municipio de Abanto y Ciérvena-Abanto Zierbena, con una población de 9.577 habitantes a 1 de enero de 2016, integra en su estructura, además del Ayuntamiento, la sociedad pública Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SL, participada al 100%, que gestiona la agencia de desarrollo local y desarrolla otras acciones que le sean encomendadas por el Ayuntamiento en los ámbitos de cultura, juventud, deportes, medioambiente y Agenda Local 21 (ver A.14).

Además, forma parte de las siguientes mancomunidades y consorcios: Mancomunidad de la Margen Izquierda y Zona Minera (gestión de RSU), Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia (gestión del ciclo integral del agua) y Consorcio de Transportes de Bizkaia (servicio de transporte). Al cierre del ejercicio 2016 participaba, asimismo, en las sociedades Talleres Gallarreta Lantegiak, S.L, y Meatzaldeko Beharginza, SL, junto con los ayuntamientos de Valle de Trápaga-Trapagaran, Muskiz y Ortuella, en la primera de ellas, y junto con los mencionados ayuntamientos y el de Zierbena, en la segunda (ver A.8).



## II. OPINIÓN

### II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

#### CONTRATACIÓN

1. Durante el ejercicio 2016 se ejecutaron gastos correspondientes a servicios de limpieza viaria, recogida de RSU y servicios complementarios, sin cobertura contractual, por 696.998 euros, hasta la entrada en vigor del nuevo contrato que se adjudicó en noviembre del mencionado año (expediente 4 en A.15).
